

anaitasuna

1979.EKO MARTXOAREN LEHEN HAMABOSTALDIA - 378.ALEA - 60 PTZA.



**EZKER
ABERTZALEA
AURRERA**

anaitasuna

euskal herriari,
informazioa
euskaraz.


EUSKAL PRENTSA
EUSKALDUNON HITZA

zeruko
ARGIA

GEU
GARA
EUSKAL
PRENTSA

anaitasuna

zeruko
ARGIA



AURKIBIDEA



4. Editoriala.
5. Diskoak Hamabostero. K. Arko.
6. Ezker Abertzalearen Hauteskundeak. J. Llerandi.
8. San Kanutoren Txalaparta. E. Entziondo.
10. Emakumeak, hauteskundeak eta alderdien paternalismoa. I. Urtasun.
12. Mitin Feminista. I. Urtasun.
14. Hamabost egun hankaz gora. I. Zabaleta, Begoña Zia.
15. Ohar laburrak.
18. Ipuin antzerako gertakari bat. Ekatxa.
20. Karlos Santamaria ikastoletaz mintzo. Manu Barrena.
22. We're fired up, we ain't takin no more. A. Eguzkitza.
24. Frantziako azken mugimendu sozialak. M.^a J. Esteban.
26. Nazio Aderdiaren mythoa (II). X. Kintana.
28. Kooperatibak sozialimo bidean (3) K. L. B.
30. Boterearen aurka. J. Sendagorta.
32. Euskal Herriko animalia jotorrenetarikoegin egindako azterketen berriak.
37. Bilboko karate lehiaketa. E. Entziondo.
38. Euskal Irakasleei jazotakoak. E. Ekatxa.
39. Gizaki. Gentz.
40. Euskararen Komodinak. J. R. Etxeberria.
41. Gurutzegramak.
42. Ardibeltz. Astabelarriak.



anaitasuna

KOORDINAKETA
J. R. Etxebarria

ERREDAKZIOA
J. Llerandi, T. Trifol

ERREDAKZIO KONTSEILUA
J. Agirreazkuenaga, M. Alvarez,
B. Atxaga, J. R. Etxebarria, Miren
Izagirre, E. Knorr, J. Idigoras,
J. Llerandi, E. Martin, T. Trifol,
I. Urtasun, I. Zabaleta

ARABA

E. Knorr

BIZKAIA

J. Llerandi

GIPUZKOA

I. Urtasun, A. Oiartzabal

IPARRALDEA

M. Lanatua

NAFARROA

I. Zabaleta, B. Zabaleta

NAZIOARTEKOA

M. Alvarez, A. Eskisabel, M. J. Esteban, T. Trifol

IDAZLE ETA LANKIDEAK

J. Artzelus, X. Gereño, J. M. Torrealday, X. Kintana, A. Eguzkitza, P. Agirrebalzategi, Mariasun Lnada, I. Azkoaga, J. L. Alvarez (Txillardegi), A. Loroño, J. Mendizabal, J. Azurmendi, M. Haranburu, M. Lasa, R. Ordorika, E. Entziondo, S. Laffite, M. Pagola, K. Anakabe, J. Sarrionandia, J. J. Bakedano, Natxo de Felipe, F. Alaña, J. Etxebarri, B. Barandiarán, K. Arko, J. Iturbe, M. Otazurialde, J. R. Bilbao, J. M. Arzubiaga.

MAKETAPENA

R. Zumalabe, J. Etxebarri

KOMIKIAK

A. Olariaga, I. Lauzirika, B. Zia, X. Etxenike, Gentz, Monty

MARRAZKILARIAK

Ttua taldea

PUBLIZITATEA

ETA

HARPIDETZA

J. Idigoras, A. Uria

ANAITASUNA

Zabalbide, 68-entlo. BILBAO-6
Tfnoa: (94)4335808

MOLDIZTEGIA

Iparagirre, S. A.

Carretera a Galdacano, S./n. BILBAO

Legre Gor. D. L. BI-1753-1967



AURRERA

Estatuko prentsa eta komunikabide nagusietan Euskal Herriaren kontra eramaten den kanpainaren argudio nagusietariko bat, ezker abertzalearen izaera minoritarioarena izan dugu bat. Azken hauteskundeek errealitatea bestelakoa dela frogatu dute. Aurrerantzean, ez du gehiago balio argudio horrek. Ezker abertzalea, lehenengoz gure historian zehar, pisuzko indar politiko bat legez agertu da.

Euskal Herri askatu, sozialista eta euskaldun baten proiektuaren alde izan diren koalizio biek, batera 250.000 botu lortu dituzte. Kopuru honekin, ezker abertzalea Hegoaldeko bigarren indar politikoa bilakatu da. Ez gara, beraz, lau katu zoro.

Aurrerapen galanta egin dela bistakoa izan arren, denak ez dira larrosak ezker abertzalearen baratzean. Helburu estrategikoei dagokienez ados etorri arren, ezker abertzalea ez da bat, eta Euskadiko Ezkerrak eta Herri Batasunak aukeraturiko hildo politikoak, hain dira desberdinak, non hainbatetan aldarrikaturiko batasuna epe laburrean lortuko dela pentsatzea ez zaigu erraza egiten.

Hauteskunde hauek frankismo erreformatuaren frakasua erakutsi digute. Konstituzioaren aurrean ezetzik argiena eman zutenak izan dira arrakastarik handiena jaso dutenak.

Hurrengo, udaletxeetarako gizonak hautatuko dira. Udala herriari lotu behar zaio berriro. Gutti batzuren interesen probetxurako erabili dira udaletxeak azken sasoiotan. Orain dena daukagu egiteko. Ezkerraren gestioa udaletxeetan, ezin daiteke eskuinarenaren modukoa izan, demokraziaren kontzepzio desberdina baitaukagu. Udalari dagozkion arazoak, herriari zuzentzen ukitzen diotenak ditugu, eta herriaren parte hartzea ahal denik eta maila gorenetara eramateko aukera ederra dugu. Gure kontzejalek gestio herrikoi eta zuzena bultzatu behar dute. Hiritarren parte hartzea ezin muga daiteke botu bat ematera.



**"Izukaitz" LPa
IZUKAITZ
Xoxoa X11.103**

Hona hemen disko esti-
magarri bat, hamabostal-
diko disko aukeratutzat
hartzen duguna.

Izukaitzek lortu egin du
obra zail eta konplexu bat,
non europear folklore ko-
rroneteak sartzen diren eta
gure herri eta folklore kantu
eta dantzekin batzen, soinu
propio bat erdiesteko ent-
seiu batean. Beren xede hori
iritsi egin dutela esan dai-
teke, musika bretoi eta bati-
pat ingelesaren eragina aski
nabaria gertatzen delarik.

Diskoan herri musikari ba-
linoa ematen dioten karakte-
ristikak aurki daitezke: Bila-
keta musikala, jatortasuna
eta berrikuntza.

Lan honetaz, Xoxoa dis-
koetxe berriak lagundu nahi
ukan du euskal mugimendu
musikalaren finkatzerako,
hitzegin dadin hortaz he-
mendik kanpoan ere, eta
esan dezakegu hasia dela
hori jazotzen Espainol Esta-
tuko kritikararien artean.

Diskoa herriko eta beste-
lako kantuez osaturik dago,
inspirazioz beteriko kantu
bat (Agur), jazz piruetak eta
herri estetika berriaren parte
diren alarde kromikoak.

Izukaitzek urrutira begirat-
zen du. Batzuta hau kaltegar-
ri lekeieke, zeren teknizis-
moa eta beronengandiko
hoztasuna baitaitezke dis-
koaren akats bakarrak.

Baina, bestalde, konple-
xutasunerako joera horrek
ondorio zuzen eta segurua-
goak prometitzen dizkigu
bigarren grabaketarako.

Zikiro Beltza, Xori Bele,
Jarrai eta Agur guztiz per-
fekturki grabatu eta guztiz
buruturiko temak ditugu.
Beharrezkoa da diskoa behin
baino gehiagotan entzutea.

Diskoak hamabostero



**"Euskalduna naiz eta
maite dut herria, oroz
gainetik gure
hizkuntza garbia"
PANTXOA ETA PEIO**

Pantxoa eta Peioren lana
bere kontestu propioaren
barnean azertu beharrekoa
dugu: Euskal kausaren mi-
tinlari legez, eta ez musi-
koak. Zentzu honetan "Eus-
kalduna naiz..." diskoak
oraino gure askatasun
nahiak itotzen dituzten pro-
blema grabaek ba direla go-
gorazten digu diskoak.
Musika erraz eta zuzen ba-
tek, jendea testuen edukiaz
ohartarazten du, berehalaxe
kantatzeko egokia izanik.

Nik uste, honelako dis-
koek gero eta zentzu gut-
tiago izanen dute, ez kan-
tuen edukiarengatik, eta ez
Pantxoak eta Peioren zint-
zontasun eta konbentzi-
menduengatik ere, baizik
eta hauen kantuen eragin-
garri musikalen ezagatik.
Hau kontutan hartu arren,
aipatu beharrekoa da, Iparr-
aldeko bikotearen bigarren
album honetan, musika
zainduago bat dagoela, mu-
sik tresna gehiago sartuz
egin dutena, batzutan eze-
goki samar gertatu arren.

Azpimarkatzekoak dira
"Ibañetako kanta", bikotea-
ren hymno-nortasun eza-
guna erakusten baitu, eta
Xalbadorren "Nigarre be-
gian" erakusten dituean ber-
ritze asmoengatik.

Disko honetan, Elkar ofi-
zialki hasten da bere diskoak
ataratzen Hego Euskal He-
rriari.



**"Argi tirriutau"
URRIA URR-04 78**

Iparraldean grabaturiko
disko honetan, kantu gehie-
nak aintzinako moduan gra-
baturiko dantzak eta jatorri
desberdindun kantuak di-
tugu, hau guztiau euskaldun
folklorearen muga geografiko-
koen barnean. Testuek —
gaztelaniazko bi kantu—
langile eta batipat abertzale
ñabardura daukate.

Urria seikotean, bi izen
agertzen zaizkigu gailen:
Jose Agirre, diskoko gazte-
laniazko kantuen egilea, eta
Pantxoa Axiari. Disko honen
produktzio, finantziaketa eta
banaketa taldeak berak egi-
ten du.

Urriaren musikan Behe
Nafarroako musika ("Lant-
zeko ihauteriak"), bertsolari
tankera ("Ene maitia..."),
bretoi musikan finkaturiko
eboluzioak ("Goizean Goiz
jeikirik"), molde klasiko-
eraturikoak ("Camarada an-
daluz", "Zapatero") eta
freskotasun eta zentzu ber-
ritz eraturikoak ("Loiolako
fandangoa", "Azpeitiko ka-
leetan bidekoa arin arin")
etab. Hitz bitan, gazteek
eginiko herri kantazko disko
bat, non surki baitaitekeen
askatasunaren alde ero-
rientzako omenaldia, zapalt-
zaileei eginiko kritika, herria-
rekiko maitasuna eta ihau-
teri musikaren alaitasun be-
roa. Hau guztiau, taldearen
posibilitateetan sinestaraz-
ten zigun zentzu gazte eta
moderno batez desarroila-
turik. Eta sinestarazten zi-
gula esan dut, zeren eta az-
ken berrien arauera taldea
banatu baita.




**"Anjel Illarramendi"
LPa
ANJEL
ILLARRAMENDI
Txindoki-Zafiro NLX
1121**

Ohizko pobrezia galduz
doan gure panorama musi-
kalean ere, denetarik egon
beharra omen dago eta he-
men datorkigu Anjel Illarra-
mendi. Ez du gustu onaren,
puntua aurkitzen, ez eta
Arestiren "Nire aitaren etxea
defendituko dut" ezaguna
konpontzen duenean. Ez
dakit nik disko hau hain de-
segoki, zaharkitu eta kaxkar
izateko, bere Madrileko ko-
laboratzaileek edo Lupe be-
zalako laguntza adiskideko-
rrek lagundu dioten, baina
niri... horixe iruditzen zait.
Maitasun anaikorrek, areto
erromantikoetako musika
eta ahots sibilino bat, ongi
egon daitezke, baina niri ez
zait gustatzen. Sentitu egi-
ten dut.

Hauxe da inuzente erro-
mantiko estilo horretan,
euskaraz entzuten dudan le-
hen "lige" diskoa. Julio Igle-
sias edo Italiako azken mo-
dako kantarien moduan,
baina euskaraz, besterik ez
genuen falta! Baina dena
goxoegia izan ez dadin, hor
ditugu Anjel Illarramendi
konposatzaileari kategoria
ematen dioten erakusketa
instrumentalak —zentzu
sinfoniko klasikorik zabale-
nean desarroiatuak— nahiz
eta berauen protagonismoa
beste musikoek eraman,
gure ustez, edonola kontra-
tatuak izan direnak.

KARLOS ARKO

EZKER ABERTZALEAREN HAUTESKUNDEAK



Joanak dira hauteskunde jeneralak. Azken hilabete honetako euforia elektorala pasatua da. Ordea, ez denbora luzerako, aprilaren hasieran udaletxeetarakoak ospatuko baitira.

Bozketa hauk zerbait interesgarrikerakusteko baliagarri izan zaizkigu, hots, ekainaren 15ean agerturiko indar erlazioa ez zela batzuk nahi bezain definitiboa izan. Konstituziorako erreferenduaren ondoren aurreikusitako bezala, Euskal Herriko panorama politikoa desberdina da gaurregun eta aski dugu erresultatuei begirakada bat egitea, alderdi majoritarioek eta prentsa estatalak minoria erradikal bezala agertarazi dituztenak, egiazko indar politikoak direla ikusteko.

ABSTENTZIOAREN HAUTESKUNDEAK

Estatu osoaren mailan, zerbait nabarmenik izan badute bozketa hauek, hori eman den abstentzio portzentaia handia izan da. Estatu mailan bozik eman ez dutenak % 33,6 a dira eta Hego Euskal Herriari dagokionez abstentzioa ekainaren 15etik hona % 10 batean handitu da. Azken erreferenduan eman zen abstentzio handi osoa PNV-k kapitalizatu nahi izan zuen, oraingoan ikusi denez, abstentzionisten kopuru hori beste sektore batzuri dagokio, eta batipat PSOE-renari.

Abstentzio honen kausa zein izan den suposatzea ez da zailegia. Erre-

formaren deslurapena, kontsent-suaren politika, ezkerreko alderdi nagusien erreformismoa eta Moncloako itunak dirateke abstentzio horren sortzaile nagusiak.

Ba dira ere abstentziara jo dutenen artean, konbentzimendu ideologikoarengatik egin dutenak. Hor sartu behar genituzke, Ezker abertzaleko zenbait sektore asanbladari, autonomoak, zenbait anarkista, etab.

Baina begira ditzagun alderdi nagusiek lorturikoa.

PNV: EUSKADIKO ALDERDI NAGUSIA BAINA...

Jelkideen alderdiak mantendu egin du bere nagusigoa Hegoaldean. Baina globalki so eginik botuak galdu dituela esan beharra dago. Nafarroan irabazi duen ala ez zail da jakitea, ez baita alderdi legez aurkeztu, "Nazionalistas Vascos" izeneko koalizioaren barnean baizik, EE, PTE eta ESElrekin batean; baina beste herrialdeei dagokienez, Gipuzkoan 16.000 hautesle galdu ditu. Bizkaian 12.000 eta Araban berriz 5.000 botu gehiago irabazi ditu.

Historian zehar PNVk indar gehien izan dituen probintzia bi hauetan 28.000 botu galtzearen zergatiarekin ba dukete zerikusirik 28 hartan. ETA-ren kontra egini manifestazioak, Espainiako batasunari emaniko baietak, eta Euskal Herriaren autodeterminazioaren aurreko abstentzioak. Ea bada, ikasten duten. Batzuren eritziz, Ezker Abertzaleak lorturiko arrakastak behartu egingen luke PNV bestelako politika bat eramatea, ez dakit zein puntutaraino gertatuko den hori, EAJko base eta buruzagien arteko kontraesanak sor baititezkeen alderdi horren izaera interklasistaren kausaz.

EAJ hildo horretan jarraituz gero ez litzateke harrigarri izanen gero eta hautesle gehiago galtzea eta bestalde, denbora jelkideen kontra dago, ez baitira gai izan gazteria beren planteiamenduetara erakartzeko eta biologiak ez du barkatzen.

MUGICA HERZOG-EN MERITUEN PAGAMENDU JUSTUA

Ekainaren 15etik hona entzun eta berrontzun ahal izan dugu PSOEko buruzagien ahotik, beraiak zirela Euskadiko alderdi majoritarioa, beraiak zirela

rela euskal langileriaren klase interesak ordezkatzeko zituztenak, etab. etab.; ezker abertzalekoak, talde minoritario eta erradikalizatu bat baizik ez genuen osatzen haien ustetan. Hogei hilabetetako politikabidea aski izan dute, porrotik handiena izan duen alderdia bihurtzeko, eta lehengo errealitatea zeharo aldatzeko, beraien kontra noski.

Suarezren politika errepresiboa onartuz, Konstituzio burjes eta zentralista bati baietz esanez, langileriaren interesentzat kaltegarri izan den politika erreformista bat eroanez, psozialistek beren benetazko aurpegia erakutsi diote Euskal Herriari eta horrela, hain merezia zuten saria hartu dute. PSOE izan da hauteskunde honetan galtzailerik handiena. Euskal Herri osoan, 80.000 botu galdu dituzte eta hori ez da kopuru txikia. Zerbait irabazi egin duten probintzia bakarra Nafarroa izan da, non lehen baino 800 botu gehiago eskuratu dituzten. Ondo beraz.

PCE, ezker espainolaren bigarren alderdiak hobeto jakin du bere tokia mantentzen, hala ere 1000 bat botu galdu du. Hau dela eta, orain-arte legez, alderdi minoritario bat izaten jarraitzen da.

ESKUIN ESPAINOLA

Estatu mailan irabazle izan den alderdiarekin hasiko gara, UCD hegalegia. Nahiz eta Araban eta Bizkaian alderdi horrek 14.000 botu galdu, Nafarroan beste 9.500 errekupeatu ditu. Gipuzkoan aurreratu ala atzeratu den ezin jakin dezakegu aurreko hauteskundeetan ez baitzen presentatu, baina lortu egin du probintzia honetan Oreja ateratzea, nahiz eta Orexako herritxoan botu batik ere atera ez.

Lehen Alianza Popular eta honetan Unión Foral del País Vasco deitu den koalizioak, UCDk baino askoz gehiago galdu du; Bizkaian kandidatura buru Olarra finantziari ezaguna presentatzen zuen koalizio politikoa honek 13.000 botu galdu ditu, eta Gipuzkoan 32.000 botu (aurrekoetan UCD ez zen presentatu), bitartean Araban gutti baino 700 botu irabazi ditu eta Nafarroan UPN koalizioak, aurrekoetan Alianza Foral Navarra-k baino zazpi mila botu gehiago lortu ditu.

Hauteskunde hauetako punturik beltziena, Nafarroarena izan da, ezin alderdi abertzalek ez du inor aterat-



zerik lortu. Kontutan hartuta Martin Villak UCD-ri guztiz mesedegarria gertatzen zaion lege bat prestatu duela Kontseilu Foralaren hautatzerako Nafarroa CGV-ra sartzeko arazoa oso zail presentatzen da.

EZKER ABERTZALEAREN HAUTESKUNDEAK

Estatu mailan nazioetako alderdien gorakada nabaria eman da, eta gure kasuan ere azpimarkagarriena Ezker Abertzalearen arrakasta izan dugu, Herri Batasunarena bereziki. Koalizio honek hiru diputatu eta senadore bat erdietsi ditu, bere alde 171.000 hauteslek bozkatu dutelarik.

Herri Batasuna eta Euskadiko Ezkerrak lorturiko botuak bat eginik, ezker abertzalea Hego Euskal Herriko bigarren indar legez agertzen da. Batasunaren koalizio horri gainera ez litzaioke askorik faltatuko PNVren tokia erdiesteko; Batasun falta horren ondorioz tristeena Nafarroan deusik ez ateratzea izan dugu.

Herri Batasunaren botuen jatorria aski heterogeneoa dugu, baina sektore desberdinak bildu egin dira koalizioaren burruka programa bultzateko. Orain arte PSOEn monopolioeraren izan diren langile emigranteen sektore batzuk, Herri Batasuna aukeratu dute honetan bozkatzeko orduan. Herri Batasunaren botua, botu burjesa izan dela esan duten PCkoek hobe lukete datuak serioki aztertzea. Eibar, Barakaldo, Sestao, Hernani, Errenteria eta Gasteiz eta Iruñako langile hauek datuak aski argiak dira eta.

Azpimarkagarria, Bilboko "La Palanca" eta Otxarkoagako marginaziozko hauek Herri Batasunak bigarren tokia irabazi duela PSOEn atzetik.

PNVrengandik, honen politikak frustraturik, ihes egin eta Herri Batasunari botua eman dion zenbait sektore ere izan da.

Herri Batasunaren altxatze honek ez die beste alderdi eta koalizioetako politikariei grazia handirik egin. Hori segi daiteke egin dituzten deklarazioetatik. Batzuentzat H. B. ez da ezkerreko indar bat; "irresponsible eta pasoten botuak izan dira", "UCDren politikak lorturiko botuak", "nazionalismo erradikal eta amorratuaren botua". Eritziak eritzi, ez litzateke arraroa izango, ezker abertzalearen koalizio honen indarrak beste alderdiek beren politikabideak berplanteiatzera bultzatzea.

Herri Batasunaren botuak, KASen puntuen aldekoak izan dira, hots, ETA militarrek defendatzen duen alternatiba beraren puntuak.

Batzuren aburuz, gaurko kojunturan, ETA militarren ekintza erradikalek, KAS eta Herri Batasunaren planteiamendu irrealak, indar hauk gero eta baztertuago egotera, masengandik isolatzera eramango zituzten. Hauteskunde hauetan bestelakoa frogatu da, masengandik isolaturik geratzeko arriskutan daudenak besteak direla.

Zerbait argi geratu da, hau da, Euskal Herrian Suarezren erreforma orain arte frakasu egin dela. Konstituzioaz lortu nahi izan duten burjes demokrazien estabilitatea, Euskal Herrian ez da hain errazki lortuko, frankismoarekiko egiazko apurketa ematen ez den artean. Zenbaitzuentzat, KASen puntu horik utopikoak dira, nik neuk ez dakit zer den utopikoagoa KASen puntuok ala Euskal Herriaren burruka ezerrean geldituko dela pentsatzea inolako erdiespen minimorik lortu gabe.

J. LL.



SAN KANUTOREN TXALAPARTA

Oso baketsuak izan ditu, Deustuako Unibertsitateak azken urteok. Duela hiru urte, euskararen aldeko kanpaina bat antolatu zen Euskal Kultur Mintegiaren bidez eta nahiko arrakasta izan zuen. Jende asko ari izan zen lanean eta 2.000 baino gehiago euskara lantzen.

Ikasleen lanak bideratu zuen burruka hau. Laguntza egokiago baten ezagatik hurrengo kurtsuetan indarra ahulduz joan da. Urte berean, "La Bernarda" k izanpetzen zituen kartel kritikoak agertzen ziren, zeinetan gertaera politikoak, telebistako gauzak eta abar satirizatzen baitziren.

Beste aktibitateak zeudelako edo, kartel hauek ez zuten ondore zarataturik izaten, baina hurrengo kurtsuetan ikaslegoaren aktibitatea jeitsi zenez gero, "El Tomate Rojo" k - "La Bernarda" zenaren semeak-harrera hobea eduki zuen ikasleen artean.

Urtarrilaren 19an, F.I.C.E. ko lehen eta bigarren kurtsuetakoek "San Kanuto" delako jaia ospatu zuten. Ondoriak, "El Tomate Rojo" ko lau ikasle espedientaturik eta geroago 40 inguru ekaineko azterketara ezin presentatuz zigortuak.

Hilabete baino gehiago da, hauzi hau hasi denetik. Istilu honen zergatia pixka bar argitzeko asmoz, Deustuako paraninfoa joan gara bertan hitxirik daudenekin hitz egitera.

Paraninfoa oso leku handiosa da. Elizetan egoten diren zurezko imajina horietakoak, goia dena irudi kla-

sikoz eta latinezko letraz eta abar... Sartu dituzten lo egiteko zaku, kitarra eta janariekin nahaste harrigarri eta nabarmena.

Maite, Alex, Armando, Txato, Ana eta beste batzuekin hitz egin dugu. Ez dugu jarriko galdera bakoitzari zeinek erantzuten dion, elkar hizketa kolektiboa egin baitugu.

—ANAITASUNA: Konta egiguzue, zergatik hitxialdi hau?

—Ba, ba dakizue, 19an FICEkoek "San Kanuto" antolatu zutela, ondoren erretoregoak karta bat bidali zuen prentsara eta gurasoetan etxetara, jaiak kutsu erelijioso eta sexuala eduki zuela esanez. Jaiaren gertatu zenaz, agiri bat ateratu dugu erretoreak esaten duena gezurtatuz.

—19ko jaia, txupinazo bat eta kalez kale batekin hasi zen. Unibertsitatetik zehar joan ondoren aula magnara sartu ginen. Erretoreak "Imagen esperpéntica y símbolo de la mas baja sexualidad" zela esan zuen. Laranja kajoi bi, kubia edo kalabaza bat eta porruak buru eta ile gisan, besterik ez zen. "El gran Kanuto Rojo" azenario bat zen. Jendea ihauterietako modura, disfrazaturik ibili zen. Gero, porruaren zozketa. "1,2,3" telebistako programan legez eta antzeko gauzak egin ziren.

—Jai hau zigortzearen helburua, problemak sortzen dituen mugimendu kritiko bat —"El Tomate Rojo" hain zuzen— garbitzea da. Karguak guztiz arbitrarioak dira, adibidez jairako kartelak jartzeagatik eta

jaiaren egoteagatik.

—ANAITASUNA: Zenbat egun daramazue bertan hitxirik?

—Hemen parangoan, aste bat bakarrik, baina urtarrilaren 25ean hasi genuen hitxialdi hau.

—Lehenengo, eta FICEkoen eraginez, biblioteka zentralean egon ginen. Otsailaren 11rarte, —maratoia egiten zen eguna— baina goizaldeko 4retan bisita berezi bat edukitu genuen...

Gehienok lo geunden, baina guretariko 4 kanpoan gelditu ziren kitarrak batekin kantatzen, eta hara non, Oroz jauna, bertoko jesuita bat, poliziek etortzen ikusten dutela. Kanpoko laurak, La bofia, la bofia oihuka hasi ziren, baina gehienok txantxetan hartu genuen.

—Jode, pankarta bat apurtu eta mahaiaren kontra, kolpeka hasi zirenean denok altxatu ginen. Kanetako ahoan eta ormaren kontra denok Guttierrez 11 furgonetan ekarri zituzten, kristoren gris pila, batzu paisanoz dena arakatzen hasi ziren "drogen" bila.

—Bi, karnet gabe zeuden eta komisaldegira eroan zituzten, besteok kalera.

—Udaletxearen ondoko "La Tortilla" tabernara joan ginen; gegoago eroan zituzten biekin batu ginen eta Posta kalean pisu bat lortu genuen zakuak eta janaria gordetzeko. Agiri bat ere egin genuen prentsara eta mitinetara eroateko.

—Hurrengo egunean, astelehe-



ARANZADI DIMISION



nean, asanblada bat egiten dugu Sarrikon eta Bellas Arteseko fakultatean segitzea erabakitzen da.

Aste bete egin eta gero, Deustu berriz irekitzen denean paraninfora etortzen gara.

—Erretoregoak, 31an, Unibertsitatea hertsituenean, talde bat Apezpikutegian egon ginen.

—ANAITASUNA: Hitxirik egoteaz aparte, beste burrukarik egin al duzue?

—Ba, esate baterako, hilaren 5ean, burruka eguna antolatu genuen; geldiune egin genuen. Deustuko plazan geundela polizia pila bat etorri eta... banatu egin gintuzten. Gero Jadoko plazan, berriro bildu ginen, berriz etorri ziren eta betikoa...

—Josu epaitu zuten egunean ere, mobilizazioa egon zen, Juzkatuaren aurrean egon ginen. Josuk estudioak bukatu ditu baina erretoreak "Allanamiento de Morada" delakoagatik salatu du.

—Beste burruka moetak ere erabili ditugu "tuna" bat egiten genuen gauero eta pasabideetan zehar joaten ginen jesuitei azken gabonak emateko...

—ANAITASUNA: Organizazio arazorik ez duzur eduki?

—Gure artean ia ez, hitxialdian geundenok komisiu batzuekin gantuen, garbiketarekin egiteko; materialea (eranskailuak, dirua...) lortzeko; kanporako informazioa biltzeko —adibidez jende pila batekin mintzatu gara. Jesuiten probintziala den Egañarekin, Bandres, Maturana eta abarrek; beste talde edo komisiu bat, agiriak prestatzeko...

—Bestalde arratsaldero, hurrengo egunerako ekitaldiak pentsatu eta programatzeko batzarreak egiten ditugu.

—Aste bukaeran, pegatinak saltzeko eta dirua eskuratzeko bidaiatxoak egiten genituen.

—ANAITASUNA: Ikasle mugimenduak zer moduz erantzun du?

—Hasieran desorganizatua egon da, kontutan har, birritan hitxi dela Unibertsitatea, eta beraz, jendea ezin baturik ibili dela.

—Klasez klaseko esanbladak egin dira, jaiaren arazoa eztabaidatzetik beste gauza asko aztertzeraino pasatu da, hala nola jentzio demokratiko baten beharra, Unibertsitate estataltaren premia, adierazpen askatasunik eza...

—Klasera sartu nahi dutenak ere ba dira, baina ikaslegoaren gehien-goak asanbladan erabakitakoa onartzen du.

—Bestalde Magistergo eskolan eta Medikuntzan ere burruka latzak izan dira.

—ANAITASUNA: Erretoregoarekin berba egiteko ahaleginik egin duzue?

—Bai, baina erretoreak ez gituden hartzen. Ez zuen gure eritzirik entzun nahi.

—20an egin zen asanblada baten ondoren, 4 pertsona aukeratu ziren negoziatzeko; bat, neu nintzen; joan ginen Aranzadirengana eta ezer ez.

—Geroago, irakasle talde bat bildutzea pentsatu zen. 48 orduko epean, erantzun bat eman zezan eskatzen zitzaion. Negoziatetan, gure aldetik, normaltasuna eskaintzen genuen, piketerik ez jartzea eta klasea joateko askatasuna; bere aldetik, zigorrak kendu beharra zeukan. Gero puntu batzuek aldatu ziren... baina halaxe da.

—Erantzuteko epea, luzatu egin da. Unibertsitatea geldi dago eta gu zain hemen, beti gu hemen.

E. E.

HARRI BATEKIN HASI ZEN



zure aurrezkien banketxea



BANCO DE BILBAO

gizaldiz gizaldi aurreratzen

EMAKUMEA, HAUTESKUNDEAK ETA ALDERDIEN PATERNALISMOA



Ekainak 15-ean hainbeste promesa egin zizkiguten! Pentsatzen genuen, horren ondoren, hauteskunde hauetarako pila bat emakume agertuko zela alderdian lanean jo ta ke. Baina kandidatu zerrendetan ikusi dugunez, edo ez da horrela gertatu, edo alderdiek lan hau egiteko posibilitaterik agian, eta gogorik ere ez behar bada.

Ezin dugu esan alderdi ezkerretan emakumeek gehiago hartzen dutenik parte kandidaturretan. Araban, "Unión Nacional" da emakume gehien atera dituen. Beste hiru herrialdetan EMK-OIC da aurretik joan dena.

Zerrendetako buru izan diren emakumeak 7 dira Euskal Herri osoan. Senaturako: EMK-OICko 1, Euskadiko Ezkerra 1, Herri Batasunako 1, Falange auténtica-ko 1 eta Falange A. T.-ko beste bat. Kongresurako: P. Proverista-k bat presentatu du eta EMK-OIC beste bat, Rosa Olivares, hain zuzen ere, beraz hau izan dugu ezkerretik kongresura joan zitekeen emakume bakarra.

ETA ZER?

Zer konklusio atera genezake? Datu hau errealitate baten ispilu dirrela. Gaur egun, alderdi politikoetan, gizarte osoan bezala, emakumeak baztertuak daudela. Nahiz eta alderdi batzuk, beste itxura bat agertzeko edo, emakumeak publikoki presentatzea komenigarritzat jo.

MATXISMO HUTSETIK PATERNALKERIARA

Emakumearen mugimenduak egin duen presioa dela eta, zenbait erakundetan problematika hau ari da planteiatzen. Konkretuki, emakumearekiko erakunde barruan dagoen bereizketaz kontzientzia ari dira hartzen.

Baina honi eskaintzen ari zaizkion irtenbideak ez dute zokoraketa hau gaintzen.

Lehen emakume gutti agertzen zirela mitinetan, eta orain gehiengotan emakumeren bat satzen dute, baina ukitzen dituen gaiak hau izaten dira: Emakumearen problematika, amnistia, irakaskuntza, sanitatea... Hots, alderdian bazterretako diren gaiak.

	ARABA		GIPUZKOA				NAFARROA				BIZKAIA					
	KONGR. SENATURA		KONGR. SENATURA		KONGR. SENATURA		KONGR. SENATURA		KONGR. SENATURA		KONGR. SENATURA					
	Kand.	Emak.	Kand.	Emak.	Kand.	Emak.	Kand.	Emak.	Kand.	Emak.	Kand.	Emak.				
PARTIDO PROVERISTA	4	1			1	0	5	0			10	1*				
ORT	6	2	10	3							12	2				
PARTIDO COMUNISTA DEL TRABAJO	6	0														
EMK-OIC	5	3	1		10	4	3	1	6	2	1	0	12	4*	3	1*
EPK (PCE)	5	1	3	1	10	1	3	0	6	1	3	0	11	2	3	1
P.N.V.	6	1	3	0	12	1	3	0					12	1	4	0
PARTIDO CARLISTA	4	0	1		9	2	1	0	6	1	3	1	12	2	1	0
P.S.O.E.	6	0	3	0	10	1	3	0	7	0	3	0	13	1	3	0
PSOE (histórico)	4	0	1	0									10	0	1	0
EUSKADIKO EZKERRA	4	0			10	0	3	1*					16	2	3	0
U.C.O.	6	0	3	0	9	2	3	0	8	1	3	0	13	3	3	0
L.K.I.	5	0	2	0	9	1	1	0	7	1	3	1	13	2	2	0
UNION FORAL DEL PAIS VASCO	4	0	3	1	9	3							11	2	1	0
HERRI BATASUNA	6	0	3	1*	10	1	3	0	9	2			12	1	3	0
P.T.E.	7	0														
UNION NACIONAL	5	3	3	2	7	0							10	2	3	0
UNION LIBERTAD DE EXPRESION			3	0	9	2				3	0		10	1	1	0
IZQUIERDA REPUBLICANA					7	2			5	0			13	2	1	0
FALANGE ESPAÑOLA DE LAS JONS (auténtica)					10	2*							10	0	1	0
U.N.A.I.									9	2	1	0				
LIGA COMUNISTA									5	1						
NACIONALISTAS VASCOS									6	0						
UNION PUEBLO NAVARRO									7	1	4	0				
FALANGE ESPAÑOLA																
ALIANZA DEL TRABAJO									4	1*						
NAFARROA BATUA																
PORTZENTAIAK	100	13,25	100	17,24	100	17,73	100	8,33	100	13,95	100	9,67	100	14	100	6,05

* Zarzuela burua emakumea da.

Zuzendaritzan emakume gutti da-goela eta honenbeste sartu behar direla. Beraz, aukera egitean, "hau eta hori eta hura kargurako gauza direlako, eta... zein emakume jarriko dugu? Zuzendaritzan ardurak banatzean, emakumeak bat garantizaturik dauka: Emakumearen problematika.

Kandidatuak izendatzean ere... "emakumeren bat sartu beharko dugu..."

Jarrera honi guztiz paternalista deritzogu.

ALDERDIEN FEMINISMOA

Eta hau da batzuentzat, alderdiak jasotzen ari diren feminismoa: Emakumeak zuzendaritzan, mitinetan, beren erakunde autonomia dute alderdi barruan, eta gainera emakumearen problematikaz txosten batzu argitaratzen dira.

Honela gertatzen da, egoera politiko jenerala aztertzen dutenek, hots, gidariek, ez dutela azterketa honetan gizon-emakume kontraesana sekulan ere agertzen.

Sindikalgintzan dabilzan liderrek ez dute emakumeak egiten duen lanak dauzkan bereiztasunaren berririk.

Nazio arazoa dela, estatutua dela, dena dela, inoiz ez dugu opresio bereizi hau bere textuinguruan jartzen.

Gero, beste kapitulu batean, "emakumearen problematika", anti-sorgailuak, abortoa, lana, sexualitatea...

Harrigarria horrela planteiatzea problematika, materialista dialektiko etab. batengan.

EMAKUMEAK EZ GARA SEKTORE BAT


Emakumeok sektore guztietako partaide gara. Ezaguna dugu nola sartzan gaituzten zokoratuen zerrrendan, "gazteak, homosexualak, zaharrak eta emakumeak...". Baina, gazteen artean ba daude emakumeak, homosexualen artean ere bai, emakume zaharrak ere ba dira.

Eta sektore guztietan emakume bezala problema bereizi bat daukate.

Beraz feminismoak, problema honi erantzuna bezala, sektore guztiak, arazo guztiak, zeharkatzen ditu eta horren arauera aztertu behar ditu.

Halaber, gizartearen errealitatea ikusi nahi duenak, ezingo du ikuspegi hau alde batera utzi, orain arte egin den bezala, azterketa zientifiko horietariko bat egin nahi baldin badu behinik behin.

ITZIAR URTASUN



MITIN FEMINISTA

Otsailak 22, Sestaon, mitin feminista bat izan zen, Euskadiko lehengo hain zuzen ere. Mitin hau, hauteskunde kanpaina barruan eman zen eta bertan, EMK-OIC, Euskadiko Ezkerra, Herri Batasuna eta LKI-ren kandidatu batuk hartu zuten parte, denak emakumeak.

Berria jaso genuenean, ez genekien oso ondo zein helburuz egiten zen mitin hau. Eratzaileek esan zuten, honen garrantzia, kanpaina barruan emakumeen erreibindikapenen defentsan ezkerreko alderdi hauen batzean zetzan.

"Beno! Agian beren alderdiek antolatuturiko mitinetan ezin dutena esan esango dute!" pentsatu genuen. Bestela, emakumeen erreibindikapenak defendatzeko, zer dela eta mitin bereizi bat? Ez al dute alderdi hauek defentsa hau beren mitinetan egiten?

"Batasuna izango da helburua", harrigarria dena dela, hain borondate oneko alderdien artean batasun beste punturik ez aurkitzea. Hau bi arrazoiren ondorio izan daiteke: Bat alderdiei hain gutti axola zaienez emakumearen problematika eta hau

betiko "antisorgailu-aborto-dibortzio-bereizkeria" ra mugatzen dutenez gehiago sakondu gabe, oso erraza zaie ados egotea beren artean. Bi, emakumeek botua ematen dute eta zentral nuklearrek ez, esate baterako, horregatik ez dute mitin antinuklear baturik egin... ba diteke emakumeak beste mitinetara ez joatea, bestalde.

GAIK: ABORTOIA, DIBORTZIOA, LANGABEZIA

Herri Batasunaren Maite Beñaran, dibortzioaz aritu zen, LKI-ren Aintzane Saitua emakumearen langabeziaz, Euskadiko Ezkerraren Karmele Baelo eta EMC-OIC-ren Uri Ruiz Birkardi berriz, abortoaz. Konklusioa: Emakumeak lan egiteko eskubidea du, dibortzioa beharrezkoa da eta abortoaren legalizapena exigitzen dugu. Guztiz ados, baina, alderdi hauek zergatik esaten dute hau beren emakumeen ahotik, hauteskunde kanpainan eta emakumeentzat bakarrik? Beren ia beti gizonezko gidariak, ez al dakite ba hau esaten? Beren mitin handietan ez al dute astirik gai hauk merezi duten sakontasunez azaltzeko?

Dibortzioa, abortoa, langabeziaren aurkako borroka, ez al dira alderdi hauentzat guztiok hartu behar ditugun helburuak, eta ez emakumeek bakarrik? Harrigarria, kontutan edukitzen badugu, gizonezkoak eta emakumezkoak elkarrekin daudela alderdi hauetan, "iraultzak horrela behar duelako, klase eta nazio loturak direla eta".

Klasea eta nazioa oso garrantzitsuztat joko dituzte baina sexu kontraesan ez. Guztiz logikoa, bi sexuak batera daudenean erakunde hauetan, bat dela nagusi tradizioz. Normala, emakumearen problematika, "sektore" baten mailara mugatzen denean, estrategia matxista baten barruan (feminista ez denez).

EMAKUMEAK ALDERDIETAN BAI, BAINA NOLA?

Hauk eta besteak esaten baditugu, ez da antialderdikeria. Alderdi batean lan egitea positiboa izan daiteke, beste edozein tokitan egitea bezala. Eta alderdi hauetan feminismoa defendatzea ere ondo dago, baina alderdi hau feminista bezala presentatzea, ez zaigu oso egokia iruditzen. Ez al da maila batean alderdien matxismoari jokoia egitea Sestaokoaren moduko mitinak emakumeen

tea, benetakoa ez den irudi bat eskainiz emakumeei, alderdi hauengan beren konfidantza jarri dezaten?

Zergatik ez zaio exigitzen alderdi hauetako edozein buruzagiri feminismoaren ezaguera sakon bat izan dezan? Nola onartuko dugu emakumeek buruzagi bezala, gizartearen erdiak daduzkan problemei buruz ezer ez dakien elementu bat? Nola txalotzen du feminista batek, bere alderdiak mitin batean, emakumearen problematika, ez bigarren baizik eta bostgarren mailako gauza bat bezala azaltzea?

Azaltze bakarria aurrerapen bat izan dela egia da, baina orain irteko modu hau integragarri gertatzen zaigu, ez badugu azala besterik ikutzen, apurkak onartzen baditugu.

Alderdiek, marxismoaren iturrietatik hartu duten teoria orokorrean egin dute lan, oinarri honetatik batera edo bestera jo dute borroka sozialaren interpretamen desberdinak direla bide, bai nazio mailan, bai nazioarteko mailan. Baina ez oinarri honetan, eta guttiago ondorengo teorizapenetan, ez da ikuspegi feminista bat azaltzen inondik inora.

Orain, emakumearen mugimenduak izan duen igoera dela eta, alderdi hauen programetan errebindikapen batzu ari dira azaltzen, emakumearen egoera bereiziarri dagokionean.

Alde guzietara, hemendik feminismoa ba dago bidea aurretik. Emakumeak, gazte-jubilatu-homosexual-ikasle-nuklear-errepresio-etab. ekin batera jartzen bagaituzte "sektore" edo "problema" konkretu bezala, horregatik da: Teorizapenen iturrian, historiaren azterketan, ez delako sexu kontraesan hori estudiatu.

Beraz, oinarritik hasi behar berriro, problematika orokorra ikuspegi berri batez aztertuz.

Horregatik, egun alderdi batean lan egitea eta feminista izatea batera, posible da; baina ezin da feminismo hau kontsekoenteki aurrera eramane alderdikeria itsugarri batez, estrategia berrikusi gabe.

Hori bai, orain arte egiaztatu dugunez errebindikapen hau kanpainetatik kanpo, paperean gelditzen dira eta kanpainetan ere mitinetatik ez dira ateratzen. Gustura ikusiko genuke, nazioarteko mailan izango diren abortoaren aldeko borroketan, alderdi hauek bere indar guztiaz parte hartzea. Ez diegu feminismo oso bat eskatzen, baina bai orain esaten dutena kalean ere defenda dezaten; eta ez emakumeek baka-

rrik, baizik eta militante guztiek, lan-tegietan, hauzoetan eta toki guztietan.

Beste arazoak direla eta, ba dakite egiten. Ahalmena ba dute. Ezaguera ere bai. Ea ba, praktikan ikusten ditugun aditu ditugun konpromezuak. Guk laguntza guztiak onartzen ditugu.

EMAKUMEOK GEURE POLITIKA EGIN BEHAR

Laguntzak bai, baina hori ez dugu aski. Guretzat ez da nahikoa abortoa eskatzea, nahiz eta beharrezkoa izan. Gizarte osoari eman behar diogu erantzun bat geure ikuspegi-tik.

Sestaoko mitina, dagoen textu-inguruan aztertu dugu, baina beste balore bat ere izan dezakeela uste dugu. Nahiz eta horrela ez agertu, emakumeok geure politika egiteko daukagun behar objektiboaren lehen-dabiziko urratsen parte izan daiketela pentsatzen dugu. Halaber, alderdi batzuetan emakumeek bere erakunde autonomoak izateak ere honen isplu dela erakusten du.

Eta hau ez da alderdi mailetan bakarrik azaltzen. Donostiako Emakumeen Asanbladak Euskal Herriak sufritzen duen errepresio egoera dela eta, entzerrona bat eratu zuen. Lehenbizikoz, harrigarri egiten da problema orokor honi erantzun bat emateko, eta kontutan edukiz hainbat honelako ekintza egiten dela Euskal Herrian gizon eta emakumeen artean, emakumeentzat bakarrik eratzea hitxialdi hau. Ageri bat atera zuten, errepresioa, exilatuen egoera, polizien basatikeria, etab. salatuz eta herriak bereak egin dituen errebindikapenak azalduz. Ageri hau, beste edozein hitxialditik ateratakoekin konpara daiteke eta berdintsuak dira. Zergatik ba emakumeentzat bakarrik? Asanbladan jarrera hau eztabaidatu eta sakondu egin behar dutela pentsatzen dute, gau hartan ez zuten posible izan eta, poliziek apaizarekin bat eginez, bota egin zituzten eta elizatik.

Nolabait, eta nahiz eta oso kontzienteki ez izan oraindik, emakumeon arakundeetan ari gara "emakumearen problematika" nolako zabalada den ikasten eta honen sustraiak bilatzen.

Bide hau jarraitzen badugu, agian, datozen hauteskundeetan, mitin edo horrelako zer edo zer benetan FEMINISTA bat egiteko gauza izango gara.



Espainian, 70 % entrepresa kiebrak jota

Euskal Herriko problema ekonomikoei buruz egin zen debate batetan, Luis Olarrak zera esan zuen: "Espainiako ehuneko hirurogeita hamar entrepresa, kiebrak jota ala pagamendu suspentsioan aurkitzen dira".

Debate edo mahainguru horretan, Unión Foraleko Luis Olarra aipatua, PNVko beste ordezkari bat, PCEko beste bat, PSOEko bat ere bai, eta azkenik, UCDko bat ere egon ziren, eta Bilbon egin zen.

Debatea hiru puntutan zentratu zen: Langabeziaren problema, siderurgiaren krisia, eta zErGa iraultzailearen arzoa.

Denetarik esan zuten hizlariak, baina agian, gauzarik interresgarriena, Olarrak esan zuen: Espainian, 70 % entrepresa kiebrak jota ala pagamendu suspentsioan aurkitzen dira".

Hori egia baldin bada, Espainiako sistema ekonomikoan transformazio handiak izango dira laster, zeren eta kapitalismoaren porrota baita.

Hori egia baldin bada, gure askatasuna hurbilago dago. Baina nok frogatzen du portzentaia hori egia denik? Nik ez.



Estimulagarri sexualak poliziak harrapatuak

Europa Press agentziak jakin duenez, Bartzelonako poliziak "estimulagarri sexualak" harrapatu eta kendu zizkion gizon bati, orain dela zenbait egun.

Estimulagarri sexual horien balioa ia 200.000 pezetatara ailegatzen zen.


Gauzak horrela gertatu ziren: Earistik zetorren Talgoa Bartzelonara heldu zenean, gizon bat trenetik jeisten hasi zen bere maletarekin. Orduan, poliziak altua bota zion eta gizonak ihes egin zuen. Poliziak maleta jaso zuen, eta hor zeuden aipaturiko estimulagarri sexualak.

Asuntu honetan ere, ikasi dugunez, txibatazioa edo salaketa izan da, zeren bestela poliziak ez baitzekien deus.

Talgoa Bartzelonara heldu eta poliziak gizonari altua bota, dena bat izan zen.

Ai, txibatoak!

Eta txarrak al dira estimulagarri sexualak? Agian, bere burua "estimulatzen" ez dakienaz, horrelako erramintaren bat erabili beharko du.



"Sozialismoa ez da askatasuna"

"Sozialismoa ez da askatasuna. PSOE-ren egiazko programa". Honela titulatzeko da, Pilar Cambra kazetariak idatzi eta argitaratu duen liburua.

Liburua oso polemikoa izango da, zeren eta, gaiaz aparte, hauteskunde garaian argitaratu baita.

Pilar Cambraren erreferentziarik ez dut, baina entzun dudanez eskuindar amorratu bat da, eta ez du sozialismoa begi onekin ikusten. Horrengatik esaten du titulu probokatorikoa horretan, sozialismo ez dela askatasuna.

PSOE-ren gaurko programa politikoa aztertzen du, eta gainera, azken ehun urtetotan partidu horrek hartu dituen erabaki inportanteenak ere jasotzen ditu. Dokumentu guztiak hortxe daude.

Hauteskundeak gainean, jadanik ospaturik, eta liburu hori PSOE-ren kontra doa.

Dena ez gezur izango.



Ceutan eta Melillan 18.000 soldadu

Kanarias, Ceuta eta Melillan 34.000 soldatu daude akortaturik, hiru lurralde horiek defendatzeko. Datu hauek, espainol armadako "defensa" aldizkaritik atera dira.

Ceuta eta Melillan 18.000 soldatu daude, hiru taldetan banaturik: "Regularrak" bat, eta beste biak Legiokoak.

Oso datu interesgarri da, Ceuta eta Melillan 18.000 soldatu izatea, zeren eta, Euskal Herrian dauden polizia 13.000etara ailegatzen baldin badira, proportzioz Afrikan baino gehiago dira hemen.

Kontutan hartu behar dugu, Euskal Herrian akortatuta dauden soldaduak, armadako soldaduak, ez ditugula kontatu, polizia bakarrik baizik.

Ceuta eta Melilla koloniak dira, eta defendatzeko soldadu ugari dauka espainol gobernuak.

Euskal Herria ere kolonia bat da, eta defendatzeko polizia ugari dauka espainol gobernuak.

Kolonialismoaren analisis bat egiteko, oso inportante izaten da beti, armada eta polizia kolonialistaren bolumena kalkulatzeko.

INAKI ZABALETA



ABORTOAREN ESKUBIDEAREN ALDEKO KANPAINA DELA ETA...

Otsailak 17, Bartzelonan, estatuarteko emakumeen topaketa bat izan dugu. Honen helburu nagusia, zera zen: Abortoaren eskubidearen aldeko nazioarteko kanpaina. Aurreko urteetan, Parisen, Bruselas eta Londren egindakoen jarraipena da. Zergatik aurten Espainiako estatuan? Ba, hemen abortoa hilketa bat bezela hartua delako eta hala zigortzen delako, Irlanda eta Portugalen antzera.

Estatu guztietan egoera berdintsua dugu puntu hauetan:

—Ez digute galdetzen, haurrik ekartea nahi dugun ala ez.

—Ukatzen digute zenbat eduki nahi genituzkeen.

—Noiz eduki nahi ditugun baita.

Azken batez geure sexualtasunaren ukapena da, geure gorputzaren andre eta jabe izatearen ezetza; amatasun aske eta desiratua nahi genuke.

Horrela, interes politiko eta ekonomiko batzuen azpian, estatu batzutan esterilizapenak eta beharrezko abortoa egitera behartzen dituzte (Indian, Puerto Ricon,...) beste batzutan, emakumeen burrukarekin lortuz, legalizatzen dute abortoa (Ingalaterran, Frantzia, Italian) eta azkenez, beste batzutan onartzen dituzte (Suizan, Alemanian...).

Bizkaiko Emakumeen Biltzarreak, topaketa hau eta kanpaina guzti hau bereganatzen du.

Denok dakigu inori ez zaiola gustatzen abortatzea, baina azken aukera bezala jotzen dugu; estatu mailan milioi erdi bat emakume behartuak dira urtero klandestinoi abortatzera...

BIZKAIKO EMAKUMEEN
BILTZARREAK

EUSKAL FILOLOGO BAT ESPEDIENTATU

Azken bolada honetan gauza kurioso bat gertatu zaio zenbait gazteri Bilbon. Goizaldean egunero ohi duten bezala eta betiko leku inguruan aparkatu dute autoa. Goizeko eginkizunak egin eta eguerdian aurora joan direnean... autoaren atea giltzarik gabe!!! Eta noski, autoak ez markarik eta ez urratu izpirik.

Eta zer uste duzu falta dela? Magnetofonoa? Irratia? Dirua? Kasetak? Liburuaren bat? Ez, halakorik ezertxo ere ez.

Autoan falta dena jaka da, txaketa edo txamarra, eta barruan zegoen agenda: Telfonoz, helbidez, eta anotazioz betea.

Eta noski, dagoeneko, belarrietan dut irakurleak egin duen komentarioa: "Eta zer, zer dago berria denik lapurreta horietan?". Eta hona erantzuna: Orain arte lapur horien biktimak, guztiak, ezker abertzalekoak izan dira.

Kasoalitate hutsa dela? Agian. Ez dela kasoalitatea? Auskalo.

OIHARBIDE

BENETAN TXALOGARRIA

Behin batean, aldizkari honen horrialdeotatik berrietatik, "euskal" prentsan euskarazkorik eza salatua eta maixeatua izan zen. Hark ondorio apurra, fruitu xumea ekarri bide du.

DEIA egunkariak azken hauetan horrialde betea ematen du euskaraz edonolako notiziak komentatuz. Euskaldungoak merezi du.

Aurten horrialde betea jarri eta datorrenean beste bat eta hola segituz gero, ba liteke benetako bihurtzea, hamar urtetarako pentsatu den berreuskalduntzea.

Eredua ba dugu, bidea ba dakigu. Nor bereari lot bekio eta hor konponi esan beharrean, hementxe eta oraintxe konpon.

Azken honetan DEIA paperak oso poliki horriyak, euskara hutsez ematen ditu denetako notiziak. Iruditzen zaizkit neri oso probetxagarriyak, DEIAk mereztizen ditu ta eman zaizkagun graziyak.

BEZI

LAPUR ARRAROAK BILBON

Jakin ahal izan dugunez, Deustuko Unibertsitatean espediente banaketa gogorra egin da, eta baratzearen hesiak gairatuz dituzte dagoeneko.

Espedienteak dituztenen artean "Tomate Gorria"koak ezezik Euskal Filologiako ikasle bat ere ba da.


Unibertsitatea itxirik den bitarte honetan Aita Aranzadi Errektore Jaunak gutun bana bidali die ikasleei. Eta besteak beste, gutun horretan zera diotse, eta espainolez, esan ere, noski: "Para los que sentis la problemática cultural de nuestro país, quiero añadir que la Universidad de Deusto desea y aspira a responder a las culturales de su entorno social estudiando y fomentando los valores de la cultura vasca".

Hitz hauk, seguraski, zuzenen, euskal filologoei doazkie. Baina haiek hitz politak baino nahiago dituzte espedientei atzera eragitea eta Euskal Filologiarekiko ardua gehitxoago erakustea.

Euskal Filologiak une honetan espediente bat baino beharrezkoago du euskal dekano bat, euskal kulturaren berri dakiena eta euskal munduaz zertxobait arduratu dena.

Eta ondoren datoz beste mila problema, hemen aipatuko ez ditugunak, baina euskaldun lizentziatuak egiteko espedienteak baino premiazkoagoak direnak.

AIMAR IDARSOROA



**AUTODETERMINAZIOA
NOIZKO?
NAZIONALISTAK
ETA
INDEPENDENTISTAK
EUSKADIN NAGUSI**

Sektore nazionalista eta independentistak nagusi dira Euskadin sektore autonomista eta zentralista soilen gainean, euskal bozemaileen jokamoldea ikusiz gero. Hauek alderdi abertzaleei 653.466 boz eman dizkiete, autonomistei eta zentralistei 574.189 soilik.

Herrialdetan, abertzaleek Gipuzkoan % 56,87, Bizkaian % 48,51, Araban % 36,49 eta Nafarroan % 17,11 hautesle dituzte.

Asteburuan euskal politikazko soegileei gogoa eraman dieten zenbakiotan Nafarroakoak ere sartzen dira, azken honetan Euskadira sartzearen aldeko diren alderdiek emandako % 54,15 botu lortu dituzte, Eusko Kontseilu Nagusira Nafarroaren ez-sartzearen alde dauden UCDk eta Unión del Pueblo Navarrok lortutako % 43,81en aurrean.

**ESTRADIZIO
GEHIAGO?**

Valensolen izan diren errefuxiatuetarik hamabost libro utziak izan dira, hala ere Euskal Herrian bizitzeko eskubidea ukatzen zaielarik. Beren egoitzetaz erabakitzeko, Iparraldetik guttienez berrehun kilometrotara dauden tokiak aukeratu beharko dituzte, hau beteko ez balute, frantses agintariak prest daude parte honetako polizia entregatzeko. Beste alde beste bi errefuxiatu atxilotu egin ditu frantses polizia: Mikel Goikoetxea eta Martin Apaolaza. Espainol gobernuak eskatua du hauen estradizioa, eta Euskal Herriak arrisku honen aurrean premiazko erantzunik emanen ez balu, segurua da Giscardek mesedetxo hori eginen diola Martini, ba dakuzue halako demokraten artean zelako ondo konpontzen diren Bestalde Sorriako gartzelan daudenentzat ez ezer aldatu eta gero eta jende gehiago ari da bertara sartzen. Madril entzungorrenak egiten ari da euskal preso eta Euskal Herriaren errebindikapen minimo horien aurrean. Hala ere, azken saspiotan nahiko moteldurik izan den amnistia aldeko burruka gogortzen ari da berriz ere.

**PIKETEARI TIROKA
ERASO**

Metalaren greba dela eta egundoko manifestazioak ikusten ari gara Bizkaian. Bilbon eginiko asanbladetan milaka lagun hartzen ari da parte. Sindikatu guztiak, ELA-STVren salbuespenaz, greba bultzatzen ari dira. Bai eta UGT eta CCOOekoak ere, azken hauk, agian, go-

goz kontra baina bestelako erremediorik ez dute izan.

Harrigarriena Sodupen gertatu dena izan da. Langile grebaliaren pikete bat, herri horretan dagoen "Talleres Yanguas"eko langileengana jo zuen, lanuzterako batasun bila. Orduan, lan-tegi horren patroiairen semeak tiroka eraso zion piketeari 13 lagun zaurituz.

Basatikeria honetaz hitz egiten ote zuen Iñigo Agirrek greba basatiak aipatzean?

Oraintsuko hauteskondeek sortezatiko eta aste-buru honetan jendearen politikazko apetaz jabetutako beste datu batzuk, ezker abertzaleak uneotan daukan benetako potentzia erakusten digute; beronen indar espezifiko ezin frogatu zitekeen hauteskondeetarainoan, ekainaren 15ean zenbait sektorek mantendutako abstentzio jitea zela eta.

Martxoaren 1eko datu berrien arauera, ezker abertzale hau, burruka harmatua diharduten ETArekin bi adarren jasotzaile eta bermatzaile, Gipuzkoako lehenengo indar politikoa bilakatu da, emandako % 30,48 botu dituelarik, honen ondoan PNV dago % 26,49rekin, eta PSOE % 18,26rekin. Bizkaian bigarren lekua du, % 20,06 duelarik, aurrean PNV % 28,45ekin, atzean PSOE % 18,61ekin.

Arabian EEK eta HBk laugarren lekua dute (% 14,22), aurrean UCD (% 24,68), PNV (% 22,27) eta PSOE (% 20,76) dituztelarik. Nafarroatik ezin atera da ehunekorik, EEK PNV eta beste indar batzuekin koalizioa osatu baitzuen, Halere, HB laugarrena da % 8 hautesle baino gehitxoagorekin.

Datuok, halabaina, hegoaldeko herrialdeetan abstentziogileek lortutako % 29tik 35erako tartean dauden zifrekin kontrastatu beharra legoke. Abstentziogileetan, PSOErekin instilutuan dauden UGTen sektore zenbaitek ez dute boturik eman; bestalde, asanbladakidetasunezko ezker abertzalearen beste sektore batzuk, berebat, abstentziarako jarrera faboratuko zuketean.

J. M. I.



IPUIN ANTZERAKO GERTAKARI BAT



Valensolerantz abiatu ziren autobus guztiek.
ez zuten helburua iritsi.

Artikulu honek, izanez, Valensolen dauden euskal errefuxiatuekin el-karrizketa bat izan nahi zuen. Hori zergatik ez den izan kontatzeko erabiliko dugu.

Bilbotik Valensolerantz 180 lagun abiatu ginen, hiru autobusetan. Gure autobusa Zabalburutik 8,30etan ir-ten zen.

Mugara 10,15etan heldu ginen. Polizia espainolarekin ez genuen problemarik eduki. Gure pasapor-teak seilaturik, denok poz-pozik, poli-zia frantsesarengantz joan ginen.

Hor hasi zen gure odisea. Gu, ofi-zialki, Marsellara (edo Marseillera-ntz, mes amis) joateko ginen eta horrela esan genien CRS direlakoei. Hala eta guztiz ere, ezin genuela pa-satu esan ziguten, nahiko modu txar-rez, noski, eta gure galderei erantzun-ik eman gabe. Berriz ere "alde es-painolera" bidali gintuzten.

Mementu horretan beste autobus

biak heldu ziren. Beraiekin ere, gure-kin egin zuten maniobra berbera errepikatu zuten, bai espainolek eta bai frantsesek, baina, azken hauek indar-despliege galanta eginez. "Hombres de Harrelson" direlakoan imitatzaile leial batzu, CRS-en uni-formez jantzita, ekarri zizkiguten ikusteko edo.

Hiru autobusak eta barruan geun-denok, hor geratu ginen aparkaturik.

Prentsari abisatu behar geniola ikusiz, gure ondoan zegoen tele-fono-kabina batetara joan zen neska bat. Kabinan gizon bat zegoen hit-zegiten. Neska sartu zenean ez ze-goen linearik... (Mila esker, jauna!). Oinez kilometro bat ibili, behar, au-topistatik, beste telefono batetara heltzeko.

Ordu 2ak inguruan, xoferrak au-tobusetatik joan ziren gu autobusen utziz. Polizia espainolak gure jarrera "de poco decoro" zela esan zigun.

Hor segitu genuen, batzu hizke-tan, beste batzu lotan. 4,20etan neska bat hasten da argazkiak ate-ratzen. Goardia zibil bat, harmaturik, noski, autobusera etorri zitzaigun fotografoa eta makina eramaten. Filmea kendu zioten. (Ez horregatik!)

Larunbatean, goiz goizean, au-rreko gauean abisaturiko EGINeko kazetari batzu etorri ziren argazki batzu ateratzera.

Goizeko 9,40etan, Behobiako beste mugara joan ginen. Polizia es-painolak libre utzi zigun pasatzea. Frantsesek akats bezala zera esan ziguten: autobusak beste mugatik pasatu behar zutela. Ping-pong jo-kuan bezala...

Berriz, autopistara heldu eta poli-zia espainolak xoferrak deitu zituen. Guk hartu genuen explikazio bakarra zera izan zen: ezin da "frantses muga" pasatu.

Goizeko 10,30etan gure arteko

neska bati goardia zibil batek zera esan zion: "Lo que pasa es que a los autobuses les falta un papel del Ministerio de Obras Públicas francés. Si hubierais "untado" (sobornado) a los guardias hubierais pasado, porque los franceses son unos cerdos. (Inoren begian lastoa, baina norbe-rean enborrik ez). Pregúntale al chofer a ver si le falta algún papel de los franceses. Seguro que a él ya lo sabe, pero no os lo quiere decir por no dejar mal a la Compañía".

Pierre Lartzabalekin hitz egin genuen, telefonoz, eta Valensolera inor ere ez zela heldu esan zigun, kontrolak ziren eta.

Hor desmoralizatu ginen.

Goizeko 11etan asanblada bat egin genuen mugan. Oka-langreresera joatea erabaki zuten batzuk eta etxera beste batzuk.

Azkenean, hor bertan, "Eusko gudariak", ukabila goian, kantatu genuen eta 11,40etan handik joan ginen.

Oka-Langreresera ezin izan zen heldu. Barazar bortuan poliziak autobusak geratu zituen, xoferrei gidatzeko karneta kendu eta Bizkaira

eskoltaturik ekarri. (Gu bidean ez galtzeko edo).

Hor bukatu zen gure abentura.

Eta hola izan bazen, sar dadila ka-labazan eta irten dadila Derioko plaza-zan...

ONDORIO MODURA

Hau da puntuz hor gertatu zena. Gauzak gertatzen ziren momentuan apuntatzen nituen nik. Baina hau guztiau ez da egia osoa; hau azala baina gehiagorik ez da, ispiluan ikusten dena.

Zergatik debekatu ziguten joatea?, zergatik eraman dituzte gure errefuxiatu horik Valensolera?, zergatik ez diete euskaldunoi errefuxio-eskubidea ematen estatu frantse-sean?...

Galdera hauen erantzunetan dago egia.

Estatu frantsesak eta espainolak problema berbera dute: nazio ukatuen, nazio zapalduena. Gure errefuxiatuak zapalkuntza horren kontra burukatu dira eta Ipar Euskal Herrian dauden bitartean, arrisku bat du gobernu frantsesak: Ipar Euskal Herrian abertzaletasuna berpiztea.

Horregatik, eta bai beste euskaldun guztiok desmoralizatzeko ere, eraman dituzte Valensolera.

Estatu kapitalistaren kontra burukatzen direnez, kapitalisten ordena apurtzen, sozialismora heltzeko, "terrorista" deitzen dituzte, eta jendeari hori sinestarazi nahi diote.

Baina Euskal Herriak ez du horretaz sinesten. Euskaldunontzat errefuxiatuak abertzale zintzoak dira, neba-arreba maite maiteak. Horregatik joan ginen Valensolerantz. Eta horrexegatik ere ezin izan ginen heldu. Gure pentsaerak, pentsaera ofizialaren kontra jotzen duelako.

Euskal errefuxiatuen kontra dararmaten kanpaina, ofizialki, estatu espainolean demokrazia dagoelako da, baina Montzon gartzelan dute, Bilboko ihauterietan poliziak egin duena ere hor dago, sanitarioen kontrako errepresioa ere bai, Herri Bata-sunaren kontrako errepresioa ere bai... Non dago frantsesek ikusten duten demokrazia? Euskal Herriak ez du ikusten, eta ikusmen oso ona duela segurtatzen dizuet.

EKATXA



KARLOS SANTAMARIA IKASTOLETAZ MINTZO


Eusko Kontseilu Nagusiko Hezkuntzaren aurduradun den Karlos Santamaria jauna izan dugu berrikitan Bilbon. Otsailaren 9an hain zuzen ere, ostiralez. Udal liburutegian hitz egin zuen eta mintzaldiaren gaia ikastolen etorkizuna izan zen.

Aretoa jendez beterik zen. Bilbo eta inguruetakoa andereño, irakasle, maisu, guraso, zuzendari, testigule, arduradun eta abar zen bertaturik. Euskaldun jendeak, bada, zinez, egun hartako entzulegoa osatzen zuena. Erdaldun bakarren bat ere izango zen, noski, baina horixe, "bakarren" bat, ez gehiago.

Ez dugu Santamaria jaunaren hitzaldia puntuz puntu kritikatzeko, ez eta alternatiba oso bat eskaintzeko asmorik, baina bai defendatzen dugu konbenioaren ardatza izan behar lukeela uste duguna: ikastola guztien batasuna. Bestalde, programaren zenbait puntutaz ere ez dugu zen esananik, zuzen ikusten ditugula baino, hala nola, ikastola bakoitzak erabaki behar duela azken batetan zer egin, edo eta ikastolen autogestio gintza gorde behar dela. Une honetan bederen, utz ditzagun puntu horik daudenetan.

Lehen lehenik egiteko dugun kritika, eta kritika oso gogorra gainera, hitzaldiko diglosiari dagokio. Mila bider kondenaturik den diglosia horretaz dugun hitza EZETZA da. Mila bider ezetz, teoriarik hain poliki esandakoak praxiara eramateko era negargari horri. Santamaria jaunak ez zuen euskararik erabili hitzaldian, esposizioan. (Bizpahiru esaldi izan ezik, ganoragabeko protestarik inork egin ez dezan, halakoak ere izaten dira eta).

Eta hori ez da jokabide zuzena, Santamaria Jauna. Ez zara kritikatu zenituen galdetzaileak baino euskaldunago. "Koño! progre bat jaurti bazenu ere. Eta entzuleriaren gehiengoa —gehiengoa diot— euskalduna zen. Edo eta hamar minututako sarrera bat edo ere ezin zitekeen egin euskaraz, itxurak gordetzeko ere? Eta ikastolei buruz ari zinen!!! Non erabiltzeko da, bada, euskara? Non, noiz, eta nortzuren artean??? Ala Kontseilu Nagusikook ez duzue behin edo behin —exenplu emanez— euskalduntzen hasteko



asmorik? Santamaria jauna, euskaldunagoa zinela uste genuen, bai zu eta bai lagun duzun Lasa kalonje ohia ere, "Euskal Ikasgu Nagusia"-z bere teoriak argitara emana dituen, eta Deustuko Hizkuntz Eskola Ofizialean irakasle dena. (Ba dakigu bai, eta ongi jakin ere, galdetzailea edozein hizkuntza erabiltzeko libre dena —orain libertate hori konstituzionala ere ba da: ikus 3garren artikulua— baina libertate hori beti gaztelaniaren mesedetan erabili beharra da kezkatzen gaituena.

Baina honez gero, gauzak diren bezala hartzea besterik ez dugu. Gero, euskaraz hitz egiteko aparteko erraztasunik ere ez duzula ikusi genuen, Santamaria Jauna, eta ez duzunik ezin eskatuko dizugu.

Bigarren salatu nahi duguna —hitzaldian bertan eman zizuten aditzera— zera da: "errealismoa". Zinen, errealismoz jokatzeko beharrezko gauza da, eta tekniko baten gan "derigorrezkoagoa". Baina Madrilerak gauzak eskatzera alde aurretik mugak jarrita joatea ez da errealismo gomendagarria. Otoi, Santamaria Jauna, Madrilen egin behar dituzun eskerei ez jarri mugak Donostian.

Hirugarrenez, Nafarroa gainontzeko Euskal Herritik bereizirik den une honetan, zergaitik ez bultzatu serioago eta ganora haundiagoz Federazioak gaur gaurkoz Euskal He-


rriko ikastola guztiak biltzeko era bakarra hori bada? Federazioek hori egin dezaketela aitortu zenuen, bai, baina jende tarteko norbaitek horretara erdi beharturik edo. Zergaitik ez bultzatu, beraz, Nafarroako ikastolak ere babestuko lituzkeen erakunde bat, EKNrentzat hori ezina bada? Federazioen Federazioa? Beste bat? Izena da guttiena, baina guztiak baturik izatea ez da kontseilari batentzat marka txarra.

Eta azkenez, EKNko kontseilari zaren Santamaria jauna, hurrengoan Baizkaia aldera zatozenez ez esan hemengo ikastolak ezagutzen ez dituzunik. Horren moduko esaldi batek zure zintzotasunaren haundia adierazten du —eta zorionak— baina, mesedez ez esan berriz horrelakorik. Ala geuk adierazi behar ote dizugu, Bizkaiko berririk ez baduzu zeuk joan behar duzula berri horien bila?

Hona bada, Santamaria jaunaren hitzaldiari buruzko gure gogoetak, eta gure eritzia. Eta kritika honen garrantzitasuna bistako gauza bada ere, aitortu nahi diogu Santamaria jaunari, bere lagintza, EKNen egiten ari dena, orohar, txalogarritzat jotzen dugula, atsegin dugula.

Beraz, hezkuntz kontseilari jauna, tartean huts batzu izanik ere, ez gait adorea.

MANU BARRENA



Has zaituz gutaz bestela pentsatzen.

Gurekin harremanetan ari diren guztiei gauzak ikusteko beste era bat eskaini nahi diegu, tratuetarako modu berri bat, eta zerbitzu osoagoa ere bai. Geroak jadanik orain egiten dizkigun eskabideetara egokitu nahi dugu geure jarrera. Horrexegatik geure buruari aurreranzko projekzio bat jarri diogu helburutzat, orain arteko aurrerabidean izan garen baino hobek izan gaitzen. Guk guztiontzat hobe izango den etorkizuna moldatzen segitu nahi dugu, eta hori gaurdanik egiten hasi beharra dagoela ongi dakigu. Geroa hementxe dago eta.



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

geroa hementxe dago.

Honela egiten genuen deihar Ameriketako ingeles dialektuaz — "sutan gaude, ez diogu egoera honi luzeago eutsiko" (we are fired up, we are not taking any more)— Mississipiko Tupelon ihazko Hazilaren 25ean, kaleetan zehar 3.000 bat pertsona, zuri eta beltz, gizon, haur eta emakume, elkarren lagun gindozazenean.

Munduko estatuturik aberatsena den Iparrameriketako Batasun hone-tan gauza asko gertatzen da harri-garri, eta lehenengo eta behin, aberastasan barroko eta ikaragarriaren ondoan, toki guztietan ikus daite-keen txoritasun eta pobrezia, baina ez guttiago norberaren haurmundu mittikoa egiazaturik ikustea, "Hego Sakon"era heltzean (the deep South) Mississipi hibaitzarraren alboan, jende beltzak, jauregi kolonial georgiarrak eta Ku Klux Klan-eko zano zuridun kide arrazista desonetak hiregandik hurbil igartzetakoan.

Iparmississipiko Liga Batuak eta Tupeloren aldeko batzordeek anto-latua, Hazilaren egun horretan "as-katasunaren ibilaldi" labur bat egi-teko zela jakin genuen hiru aste-bete lehenago lowa aldean. Zortzi hila-bete burrukan sartuta, ligak mani-festazio handiago bat egin gura zuen indarra erakusteko. Azken den-bora horretan Tupeloko populazio beltzak ez zuen zuri gehienen, arra-zista direnen, dendetan ezer erosten eta ia astero manifestazioak egiten zituen hirian bertan. Boikotea, non-bait, arrakastaz zozan aurrera eta al-katea, dendarien galerak zirela eta, hiriaren erdiko enegatik batez ere, ere orobat industrileku baketsu be-zala berberak hiriari eman gura zion ospearen suntsiduragatik, azkenez zerbait egiteko prest bide zegoen. Boikotea eragin zuen lehergaia, antza, denda batetan lanetik bidali zuten gizon beltz gazte baten kasua izan zen, baina 60-70 hamardakan Martin Luther King eta haren mugimendu baketsuaz egin ziren Esku-bide Zibilen aldeko burrukak eta guztiz ere, Tupelo aldean, eta Mis-sissipiko estatuaren iparralde osoan ere hala izaten ohi da, azkenengo ur-tean poliziak beltz gazte bi hil zituen, zenbait langile beltz oso arrazoi merkez lanetik bidaliak izan ziren (uneon bost hilabeteko lanuztea ze-goen hiriko fabrika batetan), eta behin baino gehiagotan Ku Klux Klan-a, oso lantsu alderdi honetan, jende beltza izu - eta makilatzen ibi-lia zen. Gainera, krisialdi ekonomikoa dela eta, Lee konterriko populazio beltza zen ondoriorik latzenak jasa-

WE'RE FIRED UP, W

ten zituen, Batasuneko hegoalde osoan legez, horko zuriak, beste es-tatuetakoekin alderaturik oso pobre badira ere. Irailean, "Labor Day" (La-naren Eguna) delakoan, ez baita Es-tatu Batuetan "Maiatzaren Lehen" gorririk ospatzen, beste ibilaldi bat egin zuten, eta antza, arrakasta poli-taz, 800 pertsonak hartu baitzuen parte eta Ku Klux Klan-eko berrogei lagun ("Ku Klux Klan scum of the land", Ku Klux Klan lurreko beko-rotza) desafioka ondotoxotik agertu baziren ere, galtzada beste manis-festazioek hartua zegoelarik, banaka banaka pasa behar izan omen bes-teen alboan, beren txanotzar zuri horiekin, hango jendeen irigarri eta isekagai.

Ibilaldia larunbateko goizean iza-teko zela, aurreko ostegunean "Thanks giving Day" izana zelarik jendeak ez baitzuen asteburu luze horretan lan egiten, ostiraleko arrat-sean sei lagun irten ginen lowa City-tik 1.200 bat kilometro egitekoan. Halako ameriketar beribil handi ba-tez gindoazela, gasolina asko irentsi ezik eta agian istripuren batetan — hain baitira luze— barruko jendea zeredozer gehitxoago defendatu ezik, balio berezirik ez dutenak, gure

hiri unibertsitari ttipia zortzietan uz-ten genuen atzean. Mendebalderdi-tik (Midwest-etik) Batasuneko esta-

MARCH FOR FREEDOM



Tupelo, Miss. Nov. 25

Springhill Missionary Baptist Church Noon


**Affirmative Action Now
Stop Klan Terror
Fight Discrimination**

For info and rides contact

Chicago 312 932 1011	Milwaukee 414 441 1000	Ohio 216 477 0000
Baltimore 410 547 1000	Minneapolis 612 622 5200	Philadelphia 215 462 0000
Boston 617 552 1000	Mississippi 601 552 4000	Pittsburgh 412 682 0000
Gary 219 844 1000	New York 212 964 1000	

Organized by

Tupelo Support Committees United Negro College Fund



Beltzen haurzuneetako ohizko irudi bat.

AIN'T TAKIN NO MORE



300 bat pertsona Mississipi-ko Tuperon. Beltzen eskubideen alde.

hartuta, miliak egiteko, beraiek oraindik dioten legez, edozein mementutan baitaude prest.

Horrela, Davenport-etik, Iowa-tik Illinois-eko estatuan sartuta, Chicago-tik 200 kilometrotara, estatu horretan zehar, Mississipi hibaia-aren parean beti, Missouri-koraino joaten gara, bertan San Louis-etik pasa, eta estatua utzi eta gero, Arkansas-erap bat ikutua, Tenesse-ko mendebaldeko musturretik zehar Mississipi-eraino. Oso kamino eta autobide onak izanik, bidaia osoan gauza berberak ikus daitezke gaueko ilunean, McDonald's, Pizza hut, Kentucky chicken, zarama eta sats pilo ikaragarriak eta segi aurrera. Eta norbera ez da harritzen Estatu Batuetan bada talde naturzaleek indar gehien dutenetako herria, kaminoaren ondokit bederen dena baitago zikin, apurtu eta deseginik. Hirixkak etxe txikiz, baina denak egurrezkoak eta edozein haizek eroateko modukoak: maiz jazotzen den bezala Ameriketako alderdi honetan, Kanadatik datozten haize hotzak eta Mexikoko Golkotiko beroak elkartzen direnean haizezirimola izugarriak osatzen baitira. San Louis-en ezin harrituago hango autobide-sistemaz eta zubi

ikaragarriaz. Eta erdi lo egin eta gero, gasolingaldara hiru biderrez beteta, gidatzen ez dugunok zazpirtan itzartzen garenean Arkansas-era heltzen gara. Zubi batetik sartuz, Konfederakundearen eskualdetan gaudela ezin ahantz dezakegu, Jackson-en kasu batez, estatuko hiriburuan, aurreko urterarte berrogeita hamar izardun banderaren ondoan konfederatuena ere erabiltzen baitzen. Bost bat minutu eginda, Tenesse-n sartzen gara, Menphis-en Luther King hil zuten hiria, eta izenaren zahar eta espantugarriagatik —Tutankhamen, Kleopatra eta halako asko igarotzen baitira burutik— zirar berezia egiten duena; eta are gehiago zerbait gosaltzeko gelditzean (aurkitzen ditugun), bi autobus bete Chicago-tar (ikustean), gurekin batera Tupelo aldera (baitoaz). Bertan ordubete emanda, hamaikak aldean Tupelon gaude, joan behar dugun tokia aurkitu baino lehen halako jauregi zuri horietako baten atearaino heldu gara oker gidaturik.

Beltzen hauzunean gaude, eta heldueran jende multzo polita ikusten da gure begira: Hazilean bada ere 25 gradu (ditugu), oso haixe atseginez. Manifestazioa hamabietan


hasten dugu; ligakoek antolaturik, launaka goaz galtzadaren erdia besterik ez betetzearren, lehenago hirika eta eskualdeka taldekatu garelarik. Iowa City-tik 12 pertsona etorri gara, eta hiru lerro eginez goaz beraz. Manifestazioa hasi baino lehen telefonozenbaki bat jaso dugu denok, poliziak atxilotuak izanez gero ligari deitzeko eta isuna ordaintzeko. Ordu bi ibilita, oso astiro baikoaz, hiraren erdian gaude, jende zuri asko guri begira, amorruez begira, seguru asko beren irrazionaltasun arrazistaz manifestazioko zuriak ezin ulerturik, edo eta iparrekoek erasoak berriro ere senditurik. Komisaldegikoa izan ezik, etxaurre gehienak hautsirik daude, leihoak apurtuta eta dendak hutsik ikusten dira. Komisaldegia-aren ondoan igarotzean, polizigizonak barrurik geratzen dira begiraka. Azkenean, konterriko hauztegiaren atetan, halako tankera "ameriketaxoniko" az eraikia, mitina egiten da. Eta mitinlariak, oso dotore jantzita, janzki urdin eta gorbata, kantatzen hasten direnean Euskal Herriaz gogoratzen naiz, halako kantu izpiritual beltz sarkorrek bihotza baitute dardazten. Eta arrazista izateko arrazoi bi daudela bakarrik, ahalbide bi bakarrik, otu zait uneon, estupido eta itsusi izanda batetik, norberaren estupidokeria eta itsustasuna zuzenestearren, edo eta guztiz gustugabeko, azken batetan sendikortasunik gabeko munstro bat izanda bakarrik uler baitaiteke halako kantu ederrek jota ez gertatzea.

Mitinak ordu bi iraun du, baina harrigarriena azken ordu erdian gertatu da, komisaldegia-aren ondoan, eta gu ikusteko toki aproposan, hogeit bat Ku Klux Klan-kide zuri jantzita agertu direnean. Sinestezina, baina egia: Tom osabaren mundura iritxi gara ematen du, ondoko plazan beharbada, esklabo-inkantza bat, gerta daitekeela ordu erdi barru: eta amorrua senditu dugu, bada ez bada ere komisaldegia-aren parean ikusi ditugunean. Jendeak, bai, ez die jaramonik egin eta mitina amaiturik berriro itzuli gara, kantuz eta deiharrez, beltzen hauzunera, hango zaharren aurpegi hits-alaiak ikusirik haien etxe zairbailduen atetan. Arratsaldeko bostak dira amaitu ditugunean. Zerbait jan eta gero, antolatzaileek emandako janaria, 5,30 itzultzen hasten gara. Biharamoneko goizeko zortzietan Iowa City-ra heltzen gara eta atsedenditxo bat hartzearren, 2400 bat kilometro eginda, ohean sartzen.

ANDOLIN EGUZKITZA

FRANTZIAKO AZKEN MUGIMENDU

Otsailaren 8an, Nantes-en egin zen langileen manifestazioa. Kapitalismoaren krisialdi honek frantzes estatua ere ukitu du. Langileria bere interesen defentzari ari da mugitzen. Entrepresa asko hersten ari da eta langabezia gora doa. Jendea haserre dabil, eta otsailaren 16an greba osoa izan zen Frantziako iparraldean. Sindikatuak ta gobernua giroa lasaitzen saiatu dira. Arazoa hala ere, sakonagoa da eta ez du ematen erraz konponduko denik.



Azken urteetan, kapitalismoa krisi handi bat bizitzen ari dela, guztiz ezaguna da; nonnahi ikus daitezke gertatuak; inflazioak nonnahi egiten

du gorantz eta gorantz; nonnahi, deskontentamendua, pobretasuna,... Egoera larri hau dela eta, herri desberdinetako langileak, be-

raienak kontsideratzen dituzten eskubideen alde mugitzen dira.

Oraingo honetan, Frantziari tokatu zaio. Eta hori gertatzeko behar

SOZIALAK



diren baldintza guztiak, joan den urtearen amaieran hasi ziren agertzen. Leku guztietan, geldituen portzentzia handia bada, egunero langileak

beren lantegietatik bidaliak izaten badira, edo lantegi txikiak hersten badira, Frantziako iparraldean gertatu denak, muga guztiak gainditu dute: egun batetan 10.000 langile dauzkan USINOR entpresak herterera doala jakiten da, hurrengoan, beste 5.000,... eta horrela gelditu gabe.

Frantziako iparraldean eta Lorraine delakoan dagoen ia industria bakarra, siderurgia da, hango herri askotako populazioaren 80%-a siderurgian sartuta dagoelarik. Beraz, lantegi horien hersketek asko suposatuta dute, hango egoera nahasteko; eta bat-batean ez dira txarto aurkitu lanik gabe daudenak soilik, horrela geratzeko beldur direnak ere bai bai-zik. Berri beltz horik jakin eta laster hasi ziren langileak mugitzen: grebak, hertsaldiak, manifestazioak,... Herri osoek protestatzen zuten beren etorkizun iluna ikustean: gizonak, emakumeak, umeak, irakasleak, ikasleak, dendariak,... denak.

Mugimendua arinegi zabaltzen ari zela laster ikusi zuen gobernuak, eta beste herrialdeetara zabal ez zedin, sindikatuekin kontaktuan ipini zen. Hala ere, eta itzarrotekoa zenez, ez zen inolako soliziorik aurkitu, gobernuak esaten zuen gauza bakarra, lantegi horik ez zirela errentagarriak baitzen; eta langileek, aldiz, lan egin nahi zutela.

Lan-ministruak, hala ere, laster ikusi zuen zerbait agindu behar zuela, eta orduan, lanpostu berriak sortuko zirela erakusteko, han eta hemen lantegi berri batzuren eraikitzeaz mintzatu zen: entpresak bat herri batetan, agian FORD lantegi bat beste batetan,... Baina hori guztiori gehiegi konkretatu gabe, eta gainera problemari soluziorik ez emanik, zeren hango industria guztia baitago hauzitan, eta beraz, ezin baita irtenbidea bilatu txaplata batzuta ipiniz.

Soluzioa hurbil ikusten ez zenez gero, sindikatuek barruka-egun bat konbokatuta zuten Otsailaren 16rako, egun horretan, Frantziako iparralde osoan, gerdialdiak, manifestazioak,

etab. antolatuz. Aurreko egunetan gainera, Parisera etorri ziren langile asko, ekintza berezi batzuren bidez, beren egoeraren berri ematera.

Eta 16a heldu zen; eguna ondo hasi zen: siderurgiako 90% langile geldirik; herrietan dena hitxita; eskolak zabaldu gabe; bideetan oztopoak; trenak, geltokietan gertuta,..., dena greban. Eguerdian, eta ia herri guztietan, manifestaldiak, eta garrantzitsua dena, polizia agertu gabe, CFDT sindikatuko batak esan zuenez: "ez baita mementu egokia, jendearen haserrea areagotzeko".

Bestalde, M. Barre lehen ministroak, eta M. Giraud lan-ministruak, atzean ez geratzeagatik, egunaren zentzua ulertzen zutela agertu zuten; eta ez hori bakarrik, langileen beldurra eta haserrea guztiz konprenigarriak direla, eta egoera kritiko hau konpontzeko, irudimena (agian berriak ez daukatena) beharrezkoa dela ere esan zuten. Eta bukatzeko, adituzera eman zutena, oraindik argigarriagoa da: sindikatuek antolaturiko burruka onartzen dutela, ordena baten barruan egiten baita, eta ez osterera, elementu inkontrolatu batzuk antola dezaketen edozein ekintza. Betikoa, beraz, protestak ondo daude, baina neurri batzuta gordez, noski.

Komunikabideetan 16ko gauean eta 17an hitz egin zuten sindikatuetako ordezkariak, oso pozik agertu ziren, egun horretako helburua eta gehiago iritsi baitira. Eta indar agerpen hau oso garrantzitsu izan daiteke datorren 28an hasiko diren elkarrizketak bideratzeko; egun horretan, prezeski, mahai baten inguruan jazarriko dira gobernu eta sindikatuetako ordezkariak, problemari soluzioak bilatzeko. Aurkituko al dituzte? Argi dago ezetz, problema ez baitago lantegi konkretu batzuren hersketan, sistema osoan baizik.


Nahiz eta lanpostu berriak lortzeko, nola ipin dudatan, langeldituen zenbakia gora eta gora joango dela, inola ere gelditu gabe?

M. J. ESTEBAN

NAZIO ALDERDIAREN MYTHOA (I)

Ezaguna dugu Frantses Iraultzatik hona, jakobinista eta xovinisten laguntzaz, Frantzia eta Espainian sortu izan den Estatu-Nazioaren mytho zapaltzaile eta zentralista. Beronen arauera, Herrialde batzuetako bizilagunen zerbitzutan egon beharko lukeen Estatuak, jende horik bere interesen zerbitzutan darabiltza, hastapeneko Nazio bakoitzari Estatu bana hartatik, Estatu bakoitzari Nazio bana delakora iraganez, hots, planteiaren aldrebeskuntza osoa eginez.

Beronen eraginak hor daude, eta kalte egiten digute oraino. Hala ere, etsai jadanik ageri eta salatua den neurrian, beragandik gordetzen eta haren kontrako defentsa prestatzen hasi eta ikasi dugu aspaldian. Honez gainera, ordea, ba da gure artean beste mytho bat, aurrekoaren arrisku ezagunetik salbatuz joaten eta joango garen neurrian, haren pareko etsaia bihurtzen ari zaiguna, Alderdi-Nazioarena, hain zuzen.



FAXISTEN GOGOKO MYTHOA

Alderdiak, komunzki onhartzien denez, helburu batzutarara heltzeko erakunde politikoak izaten dira, halako edo holako ideologiaren aldekoen indar praktikatu eta koordinatzeko sortuak, partaideek banaka lortuko ez luketena, beraien zuzendaritzapean erdiesteko. Alderdiak, beraz, zerbaiteko BIDEAK dira, ez besterik.

Nazio-Estatutik Estatu-Naziora inoiz gertatzen den aldakuntza, dena den, alderdietan ere suertatzen da maitz, eta honetara, hasieran helburu batzutarara iristeko BIDE zena, askotan HELBU-

RU bihurtzen da, azkenean bai partaideak eta bai helburuak alderdiaren zerbitzu eta komenentziapeko zerbitzu bilakatu.

Helburu-okertze hau, historia luzeko alderdi gehien zoritxarra izaten da, bai eskuinean eta bai ezkerrean, kasu berezietako bat Alderdi-Nazioarena izanik. Berau nazionalismo xovinista eta eskuindarraren defentsarako sorturiko alderdien jomuga izaten da. Hasieran nazioaren defendatzailetzat jarririk, beren ideologia, programma, leader eta simboloak, pixkanaka, nazioaz identifikatu doaz, azken buruan biak, nazioa eta alderdia gauza berbera direla uste izan eta aldarrikatu arte. Horretara, holako eritiz, alderdiaren buruzagi eta jokabideak oro nazio osoarenak dira, beraien kontra egindako kritika guztia NAZIOARI BERARI egindako irainak, eta boterea eskuan duten neurrian, urriak gabeki zigortzekoak. Era guztietako faxismoek agertu dute, horrela, beren aurpegia.

Kasu hurbil bati begiratu gero, horixe dugu frankismoa. Frankistak beti saiatu izan dira beren ideologia, klase guztien gainetik eta azpitik, espainol herri osoaren interesekin batera agertzen, beren simboloak (bandera gorri-horia, armada, harmarria, himnoa...), sloganak (Espainia bat, haundi eta askea; lehenago gorria zatitua baino; Espainiako herri eta gizonen batasun saildua...) eta balioak (familia, erlijioa, ordenua, bakea, aberria, tradizioa, hispanitatea, hizkuntza...) nazio osoarenak bailiren. Beraien heroi eta politikariak, halaber, nazio osoaren dudagabeko gizaunditza zerabiltzaten (Espainiak asko zor die Franco eta Jose Antonioren, tradizioaren martiriak, Jainko eta Espainiagatik hilak...). Haiekin ez zegoen guztia edo eta haiez kritikarik itikiena egitea, nazioari berari egindako burla gaiztoa zen, antinazionala beraz, edonolako gaztigua merezi zuena.

Portugal, Alemania, Italia, Txile edo Argentinan, noski, gauza bera ikusiak gara, faxistek ez baitute inon irudimen haundiegirik agertu.

DENBORA BERRIEN SEINALEA

Demokrazia heltzen denean, ordea, nazioaren ordurarteko defendatzaile suhar bakarrek, gogoz kontra bada ere, beren eksklusibismo inozo hori alde batera utzi behar izaten dute, nazio oso horretako klase eta interes konkretu eta aski mugatu batzuren aldeko gisa biluzik geldituz. Eskuindar zentzudunak, UCD edo AP, esaterako, laster asko konturatzen dira egoera berriaz eta alderdi klasista zabalago edo hertsiaotan eratzten dira, nazioko beste klaseen aurka burrukatzeko prest.

Amorratuenean, aldiz, iraupen mirengarri bezain fanatikoaz, lehengo erara

segitu nahi izaten dute, epe berrian jadanik guztiek onhartzen dituzten simbolo erakargarrienak berenak bailiren azalduz. Horrela ulertu behar da, kasu, Fuerza Nueva-koek bandera espainolaz nahi luketen eksklusibismoa. Eta horrek bere logika du, zeren beren lehenagoko nagusigo politiko-ideologikoaren garaitik gizarte berrian geldituriko simboloen aitasuna gogoratzean, alderdi horren ukaezinezko partaidetasun eta garrantzi historikoa erakusten eta zabaltzen dute, simbolo horik hain alegeraki onhartu dituzten alderdi berriek kontutan hartzen ez dutena agian. Helburua, noski, simbolo horik begi onez dakuskien jendea erakartzea besterik ez da, lehenagotiko identifikapenaz baliatuz.

EUSKAL HERRIKO ALDERDI-NAZIOA

Zinez interesgarria dugu, ikusmira honetaz, geure Herriko alderdi baten jokabidea aztertzea, PNVrena, hain zuzen. Hemen ere, eta neke handirik gabe begiratzea aski da, kanporako seinalatu ditugun ezaugarri guztiok ematen dira, gero eta botere politiko handiagoaren jabe eginez joan den neurrian are izaera larriago eta kezkarriagoz hornituz.

PNVren eksklusibismo nazionalistaren iturria, jakina, bera Euskal Herriko lehen alderdi abertzalea izatean aurki liteke, baina hau, nolahi ere, xehero aztertu beharko genuke. Berak behin eta berriro laur haizetara esan duenaren kontra, ez zuen PNVek Euskal Herrian nazionalismoa sortu. Beraren aurrean ba zen karlismo (bai eta liberalismo ere) bat, foruen eta herri eskubideen defentsa parlamental eta harmatuan bere nazionalismoaren froga garbia luzaro eman zuena. Zumalakarregi, Xaho, Iparragirre, Moraza, Kanpion, Luis eta Sabino Arana berak, kasu, horien fruitu jatorrak ziren.

PNVek, hala ere, sorreratik bertatik nazionalismo eksklusibistaren bandera hartu zuen, euskal nazioa alderdi horren jabe pribatua izan balitz, karlista eta liberal foruzaleengan zegokeen eskaltzaletasun positiboa ukatzen eta haiekiko loturak oro hausten saiatuz. Astiro aztertzeke gaia litzateke zein puntutaraino izan zen Sabino bera nazional hertsikeria horren iturri eta zein parte dagokien haren geroagoko jarraitzaileei. Abandotarraren obrak hotzean irakurri eta gero, nik neuk Sabinorengan akats horren erro sakinak maiz agertzen direla esango nuke. Azkuek berak, bestalde, Sabinok euskara bere jabe pribatutzat zeukala salatzean, intransigentzia hertsia horren berri ematen digu, hizkuntzaren orthographiaren batasunaz Hondarribian Aranak protagonizaturiko eskandaluak are hobeki nabaritu.

Sabino erreala eta mythikoa

Gaur egun, edozein gizon historiko juzkatu eta kritikatzeko —bai Jesukristo bera ere— bidezko iruditzen zaigun aro honetan, Sabino Arana gauza bera egiten ez uztea fanatismo ez beste dateke. Eta Sabinoren bizitzaz azterketa serio-sik egin nahi ez dutenak, paradoxaz, beraren alderdikoak berak dira, bere hartaz ofizialki emandako irudi faltsua apurtuko ote zaien beldurrez. Fuerza Nueva-koak ditugu, halaber, Francoren biographia objektiboen kontra direnak. Zeren PNVek gure artean ezaguterazi duen Sabino Arana izaki mythiko bat besterik ez baita, egiaz bizi izan zen pertsona historiko hura ez bezalakoa.

Interpretatzaileen arriskua

Maoren liburu gorria, esaten denez, ez omen da txinatar buruzagi haren pentsamendu politikoa ezagutzeko biderik onena. Arrazoia sinplea bezain argia da: hor azaltzen diren testuak, Maok idatziak izan arren, Lin Piao jeneralak hor han hemenka hautatu eta bilduak dira, bere ideologia eta interes berezien arauera. Horrela, beraz, Maorena barik, Lin Piaoren ideiak azaltzen ziren nagusi bertan.

Sabinorekin beste horrenbeste esan genezake. Guk eskuharki dazagugun Arana PNVek haren bizitzaren pasarteetatik hortik eta hemendik aukeratu eta interes batzuren arauera fabrikatu da, textuinguru osotik aterea. Eta bere alderdiaren interesen modukoa izan delarik, Sabino Arana ofizial hori, logikoki, urteetan zehar aldatua izan da, PNVren aldaketaz batera. Horrela, gerraurrean abandotarraren ikuspegi arrazista batere lotsarik gabe erakusten zen, gaur hori tabu bihurtu arren. Bai orduan eta bai gaur —baina agian ez bihar!— Arana-Goiriren azken orduko espainolismoa estali izan da. Haren katolizismo esentzialista ere, bestalde (“nahiago dut Euzkadi esklabua, ez kristaua baino” idatzi zuen) gaur, denbora berrietara moldatuz, pixkanaka itzaliz doa.

Ez noa ni esatera, ez eta antzik ere, alderdi batek bere fundatzailearenak ez bezalako bideetatik ibiltzeko eskubiderik ez duenik, baina gure Herriaren historia ahalik eta objektiboenik ezagutu nahi baldin badugu behintzat, on litzateke, hori egiten denean, gauzak argi eta garbi esatea.

Ala Arana espainolista, integrista, arrazista eta antisozialista hura ere ez al zen Sabino? Norbere gustu eta balorapen subjektiboen gainetik, gutxienez, pertsonaia historikoen ezaguerarela beharko genuke, zein nolakoa zen jakiteko.

Xabier Kintana.

KOOPERATIBAK SOZIALISMO BIDEAN? (3)



Batasuna da langileriaren harma nagusia. Metalaren grebalarien manifestazioa Bilbon.

LANGILE PENTSAKERA ETA BURRUKABIDEAK

Egun gure Herrian egoera politiko —eta ondorioz ekonomikoa— ikusirik, konklusio batetara heltzen gara: KAPITAL HANDIAK EZ DUELA NAHI EUSKAL HERRIAN INBERTITU.

Gobernuak bere sasi arrazoiak eman arren, garbi dago txantaia bat besterik ez dela herria desmobbilitatzeko, bere dinamismo berezia itzaliz.

Begiratzea besterik ez dago langabezia nola ugaritzen ari zaigun eta nora heldu litekeen...

Egoera honen soluzioen artean, bat, kooperatibak sortzea da, baina kooperatibak gaur funtzionatzen duten bezala, problemari erdizkako soluziobidea ematea besterik ez da. Eta langileok SOLUZIO OSOA BEHAR DUGU!!

Langile eta euskaldun bezala, zeren egun kooperatibismoak Euskadin erresponsabilitate historikoa baitu.

Erabateko erabakiak hartu beharra daukagu kooperatibetan, Euskadiren etorkizunari begira. Arazo sozioalak

etengabeko eboluzioan egon behar du edo bere buruaren esplotatzaile bihurtzeko arriskuan erortzen da gizakumea.

Kooperatibismoaren sistemak moldagarria izan behar du:

- a) Bere langileen pentsakera sozializatuz.
- b) Sozialismo maila batzu bizitzeko bideak eskainiz.

Euskal Herriaren etorkizuna sozialismoan dagoela sinesten dugunok, orduan sineskorra izango baitugu kooperatibismoa sozialismo bidean doala.

Esan beharra dago kooperatiben direkzioak nolabaiteko sinesmena ba duela eta lanean ere aritzen dela. Baina, beraien sinesmena ekonomi indarrean gehiegi finkatua ote dagoen antza ematen dute.

Eta ekonomi indarra oso beharrezkoa badugu ere, nork uka dezake ekonomia maiz erabiltzen dela langile pentsakera eta burruka-bideak itozteko?

Norbaitek honela ez dela pentsatzen badu, honelako galderak egingo genizkio: Funtzional, erretorno, intere-

sak, eta kapitalaren depreziazioaren aplikapenak langile kontzientzia jasotzen al dute?

Bizien garestipenagatik konpent-sazioa "a razón de índide" egiten da. Ordainketa funtzionala ere ezberdintasun batean dago. Direktiboek eta ofizial maila dutenek 0,40n dute limitea eta beste langileek 0,20n. Hau ere indizeren arabera. Metodo banantzailea ez ote?

Hauetariko ezberdintasuneek langileen artean "klaseak" sortzen dituzte era guztietara eta nola ez dirua jasotzerakoan...

Indize estrukturalen artean, ezberdintasun ikaragarriak egotetik kanpo, orainik zapaltzaileago dugu indize funtzionalaren aplikapenak. SARI bezala erabiltzen da, gizonaren portaera apala, ixila, eta serbilista saritzeko.

Erretornoak dira beste puntu problematikoa bat. Ezberdintasunez egite-tik kanpo, bazkideen libretetan jartzen dira baina diru hori zorigaitoz ez da izaten lanpostu berriak sortzeko, bai-zik eta "aliziante" bat bazkideentzako.

Sozialismoa, "klaserik" gabeko gizar-tea bada, nola noar daitezke sozia-lismoaren izenean honelako oinarriak?

Kooperatibetako langileok duda handiak ditugu egiten ari garen "es-truktura" gure pentsakeraren aurka ez ote doan. Zeren sortzen ditugun aber-astan materialak, gutxiren eskue-tan gelditzen direlako eta askotan (langileen) sozial aurrerabideak mugatzen dituztelako.

Erraz da esatea kooperatibismoa horrela dela... estatutuak guk onartuak ditugula eta aldatu genitzakeela... baina, noiz eta nola izango da posible, bien bitartean kooperatibetako sis-tema langileok banantzen ari bada?

Sistema honi bere indar apurtzailea ahultzeko alternatiba bat jarri behar dugu. Lehen pausoa hau litzateke.

a) Kooperatibistok **ohartzea** sis-tema faxista batek jarritako tranpa bat dela, sozial kontzientziaren hazia agortzeko. Honen froga daukagu en-trepresa kapitalistetan. Langileek za-palketaren kontzientzia biziago dute, elkartu eta burrukatzen dira beren es-kubideak lortzeko eta gu —penagarria da esatea— elkar saltzeko gertu gaude...

b) Euskal Herriko askatasunaren bu-rruka bikoitza da: **Nazio** askatasuna eta **langile** askatasuna. Hau ere bi era-tara ulertuz:

- 1) Herri legez gure ekonomiaren jabe izan da.
- 2) Ekonomi horren jabe gutxi batzu izan gabe, baizik eta denok —gehiago, aberastasuna sortzen ditugunok— host langileok.

Banantzen gaituzte "txantaiak" —diru ezberdintasunak, estruktural, funtzional, erretorno, interes, kapitala-ren depreziazio, bizitzaren garestitzea etab.— aztertzeko gai izan, elkar in-dartu eta **langile batasuna lortu**. Ez dugu esan nahi, estruktura aldetik ez-berdintasun maila bat ez denik egon behar. Soldata aldetik bai baina beste guztiak ez dute izateko arrazoirik.

Prozesu konstruktibo bati hasiera emateko, gertu egon behar ginatete —sozialismoaz sinesten dugunok behinik behin— lehen aipaturiko "sa-riak" eta ezberdintasunaren ondo-riak, bakoitzak bere sakelean gorde gabe "fondo de reserva"-ra sartu, lanpostuak ugaritzeko, (emakumearen eskubideak kontuan izanik) langile ger-tuketa gehitzeko, lan seguritatea ho-betzeko, etab...

Euskadiren aberastuna eta askata-suna **LANEAN** oinarritzen da. Lanean dago gure etorkizuna, baina lanaren ordaina kolektiboki inbertituz eta ez produktua ahal dugun gehien etxera eramanez.

Jokera indibidualista honen ondo-rioa sarritan izaten da, entpresak Bankuen dependenzian egotea, ma-kina berriak, lehen gaiak etab. behar direlako eta Bankuek —ez ahaztu— ez dira sozialismo zale, are gehiago, ka-pitalismoaren seme zintzoenak baizik.

Gerriko uhalak hestutzeko garaia heldu da, baita ere denok lana egiteko, burokrziaren zerbiketa apurtzeko eta gure artean "buzo" gehiago ikusteko. Honela jokatuz gero, orain ezin biziak hestutzen dituen uhalak apur bat la-saituko dira.

Alternatiba hau aurrera eramateko langileen eritziak jasoko ditugu, ho-nako galderen bidez. Epe bat emanda gero —ez luzeegia.

- 1.—Gure artean dauden eskirolekin zer egin behar da?
- 2.—Langile pentsakera eta burruka apurtzen ari direnekin nolako neurriak har genitzake?
- 3.—Kontseilu soziala batzorde zu-zendaria, Pertsonal Departam-entua, zuzendari kontseilua, egunero egiten den "sabota-jea"ren erresponstabeekin zer egin behar litzateke?

Eritziak jasoz gero, determinazio gogorak hartzeko gertu gaude, naiz eta hori ez izan gure nahia.

Kooperatibistok erresponsabilitate historikoa daukagu langileria-aren aurrean eta Euskadi burrukalariaren aurrean

K. L. B.

Kooperatibetako langile batzordea

ALDIZKARI hau **IRAKURRI NAHI** baduzu, bete ezazu argi, ondoko txartela eta bidal helbide hon-tara:

ANAITASUNA

ZABALBIDE 68., BILBO-6

POSTA KAXA : 495

Tfno. bakarra: 94-4335808

Izen deiturak.....
 Bizilekua.....
 Herria eta Posta Barrutia.....
 Bankua eta kontu irekia..... Tfnoa.....

anaitasuna

HARPIDEDUNA!

Gurekiko harreman guztietarako aipa ie-zaiguzu, zure zerbakia.

**BIZKAIA
 HAMABOSTEROKOA**
 Zuzendaria
 X. Arzelus

URTEKO ABONAMENDUA:

EUSKAL HERRIA:1.200 pezeta /75 F.F.
ESPAINIA eta FRANTZIA:1.500 " /93 "
EUROPA eta AMERIKA:1.600 " /23 U.S. d.
 Beste herri guztiak.....1.700 " /25 U.S. d.

BOTEREAREN AURKA

Garai guztietan zehar, bizitzak artearekin dituen mugak deuseztatzea, kimera baten modukoa izan da. Egia baita, etendura hori lortzeko egin diren entseiu guztiek porrot egin dutela. Politika eta kultura konbentzionalak deuseztatzeko izan diren mugimenduek ez dute bestelako bukaerarik izan.

Gaur egun, nik uste, inork ez du sinesten familia tradizionalaren alternatibaz, ez eta horren ordezkua komuna daitekeen ere. Bizitzaren dramatizaketak ere ezin ditu politika edo kultura tradizionalen kontraesanak gainditu. Bestalde, inork ez dezake sinets gaurko "familia" edo ideologia ezkertiarraz eta bere ekonomizismo aurreratzaileaz. Arte mailan ere, ez dugu jadanik onhartzen, pintaera berri batek iraultzarantz gizartea bultzatuko duenik.

SISTEMAREN KONTRAKO ERREAKZIOAK

Sistemaren kontra joan diren erreakzio guztiek, ez dute egoeraren aldatzerik lortu. Esan dezakegu, egoera hori aldatu beharrean, finkatzen eta orokortzen ari dela. Dena dela, ez baldin badugu gure buruak kontserbatzaile eta konformista bihurtu nahi, erreakzio inuzente horiek zabaldu zizkiguten ateetatik jarraitu beharra daukagu.

Izan diren erreakzioak nolakoak izan diren ikusteko begirakada bat botako diogo erreakzio intelektualari: Filosofo berrientzat, egiazko azpiegitura, funtsa edo motorea ez dago jadanik produkzio harremanetan; horiek ikusten duten motorea, funtsezko kontraesana, guraria da, diskurtsua, jarraipenik gabeko hizketaldia.

Horien kontra, bestalde, hauxe dugu: Botorea, instituzioak, familia, zientzi lengoaia. etab, besteak erreprimitzen eta instituzionalizatzen.

Deleuzek eta Guatarik honela diote: "Guraria eta arazo soziala besterik ez dago. Beste instituzioak oro, berauen adierazteko eta berrafirmatzeko dira, bai familiarki, genitalki edo produktiboki, etab., ez dira haien errepresio tresnak baizik.

Psikoanalistek harreman edipikoak gurariaren genealogiaren motore eta arau legez jartzean, arrazoia ematen diote gurariari, eta gurari horren apalketa edo errepresioa funtsezkoa bezala jotzen dute.

Foucault-ek gurari hutsaren orde, diskurtsuari buruz hitzegiten digu: Diskurtsua edo gertaera basati eta jarraipenik gabekoa. Eta diskurtsu hori apaltzeko, sozializatzeko eta zuzentzeko, instituzioak, dotrinaren lengoaia, diskurtsu

araupetu eta kontrolatuak, etab. Hots, erlazio sozialen funts eta oinarrian, errepresio eta diskriminaziozko sistema aurkitzen dugu (Rubert de Ventos-ek "Logofobia sakona" deitzen du).

BOTEREAREN KONTROLAK

Planteiamendu honek zera adierazten digu: Produkzio harremanen kontrola eta honen erreproduzkitasuna gaurregun gainditurik eta domeinu harremanak bihurturik daudela. Gaur kontrolpean daudenak ez dira bakarrik lana eta produkzioa, oinarrizko zerak ere berdindatzen: Guraria, mintzaera eta diskurtsua.

Gainera kontrol hori, nonnahi agertzen zaigu sakonki: Hots, ez da bakarrik lehen bezela produkzio medioen kontrola eta jabegoarena, baizik eta horren lengoaia, diskurtsu eta xedea ere bai. Gaurregun sistemaren domeinua ez dago bakarririk errendimendu ekonomikoari, interpretazioak eta esangurak ere sistemak jabeturik ditugu. Sistemak kontrolatzen dizkigu gauzen eta gertaeren interpretazioak eta adierazpenak ere. Ez mundu objektiboa bakarrik, mundu subjektiboa ere bai.

Lehen, lanerako indarraren lapurketa, irabaziaren bilaketa aurkitzen genituen. Gure egunotan, boterea askoz ulergaitzago eta eskuragaitzago bilakatu da. Foucault-ek esan legez: ("ordre du discours") gaur guk sorteraizten dugun onura nora doan eta non berrinbertitzen den ba dakigularik, behar genuke jakin boterea noraino erabiltzen den, zein moduz, egituraz eta mekanismoz; eta noraino hierarkiak, kontrolak zigorrak, debekuak etab. botereak erabiliriko tresnak diren. Boterea non egon, bertan erabiltzen da, bertan behartzen du. Inor ez da benetan haren jabe eta dena den, norabide berdinerantz erabiltzen da. Boterea nork duen ez dakigu, baina bai nork ez duen. Deleucek dio: Esplotatua nor den, abantailak ateratzen dituen nor den jakin daiteke, baina boterea hori baino eskuragaitzagoa, hedatuagoa da. Nola konpreni daiteke bestela, boterearen ardurarik ez daukaten pertsonen berarekin identifikatzea? Baina axola edo interesa ez da azkena; garrantzitsuena, gertatzen diren gurariaren aldaketak dira. Gure gurariak aldatu, eta berauen orde besta batzuz sortarazten dizkigute, hau da, iraulketa bat gertarazten digute nahien maila horretan".





Behin eta berriz agertzen zaigu gurari eta boterearen arteko banaketa hori. Botere horrek gure gurarien sistema kontrolatu eta konlonizatu egiten du, baina ez hori soilik, gurarien lengoia ere haren azpian erortzen da; eta guraria erreibindikapen ekonomiko eta arazo pertsonala bilakatzen lehiatzen da.

Honela lengoia eta beronen kodigo eta arauak kontrolatzean, botereak guk geure eskakizunak ez planteiatzea lortzen du, berak osatu eta bete nahi dituenak baizik.

Komunikabide horik kontrolatuz, kodigo produktibista, aurrerakoi eta kontsumista bat barreiatzen da, eta jendeak, kodigo hori arautzat onartuz, haren gurariak adierazten dizkio besteri, eta bere buruari ere bai.

Botereak arriskuak non dauden eta gure etsaiak nortzu diren esaten digu beti, hauk sistema kanpotik datozkigula adieraziz, eta denon gaudela berdin mehatxaturik, bai zapalduak eta bai zapaltzaileak ere. Energiaren krisiaz eta hondamen ekologikoaz, esate baterako, denok berdin pairatzen dugula esaten digute eta errudunik ez dagoela. Bestalde ere, behar sinbolikoak eta justiziaren xedeak, botereak progreso eta teknologi terminoak bilakaturik itzultzen dizkigu.

KONTROLAREN TANKERAK

Prozesu honen adibide bat uniberistatean aurkitzen dugu. Illich-ek dioen bezala: "Jende gazteak, bere interes intelektualak betetzeko, betiko formazio bidetik segitu beharra baldin badauka,

notetan eta dokumentutan neurturik eta finkaturik, ba dago prestaturik bitzitaren edozein alderditan planifikazio instituzionala onartzeko. Hau da: Edozein amets, gurari edo helburu betetzeko, ba dago gizartean insituzio bat, bere baretik aurreratutako edo osatzeko, eta ba dago ere gizartean, objektu bat, gurari hori betetzeko". Esate baterako gurari sexuala betetzeko, egon da eta gaur egun, nahiz apur bat aldatuta izan, ba dago ere ezkontza, eta oraindik maitasun librea praktikatzen dutenei ez zaie berau erraz barkatzen.

Kodigoa, arauak kontrolatuz, botereak bere nagusigoa finkatzea lortzen du. Marx-ek zion moduan, objektu bat subjektuarentzat produzitu beharrean, subjektua sorterazten da objektuarentzat.

Baina gure sentimenduak, xedeak, astia, etab. sistemak aurretik manipulatutako behar ditu, kodifikatu behar ditu eta kontsumo lengoia bilakatu. Hau da, pertsonak gauzak aldatzeko dituzten nahiak, "moda" bilakatu, jakiteko gurariak tituluak bilakatzen ditu, bidaiak egiteko gurarietaz turismoa ateratzen du, etab.

Ezer ez da gelditzen sistema kapitalistik kanpoan. Gizonarenak diren gauzak oro interesatzen zaizkio eta kontrolatu egiten ditu. Gizon modernoak erosotasun handiagoa lortzeko, ordu guttiago ematen du lanean. Halabaina, aisetasun, ongi izate eta asti hori erabiltzeko kontrola galdu egin du. Sistema ho-

netan, bizitza denbora osoko lan bat bihurtu zaigu. Gaurregun, gure denboraa osoa, bai lanteregia, bai bestea, produktiorako pentsatu eta planifikatua dago. Astia ere, sistemak emandako produktuetaz betetzen dugu: Telebista, futbola, zinema, igandean automobila, dantza tokiak etab.

KONTROL OROKOR BAT

Toki eta sasoi guztietan aurkitzen ditugu kontrol sistema berriak eta sistemaren aurkako erreakzioak ezin dezake bestelako erarik hartu, ez ohizkoak diren portaerak baizik. Mundu guztiz planifikatu batean gaude eta gure portaera eta ekintzak, botereak erakutsita ditugu. Bere kontra egiteko, onartzen ez diren bizi moduak, anomaloak, kolonizatuak ez direnak erreibindikatu behar ginituzke. Hots, turimoaren ordez, nomadismoa, informazio manipulatuaren ordez, grafitiak edo irrati piratak, familiaren ordez komuna, errepresio sexualaren ordez, homosexualitatea, trabestismoa edo sexualki diferentziaturik ez daudenen portaerak, etab. Irudimena sartu behar genuke eguneroko bizitzan.

Heziketa eta kulturaren gainegiturek ez dituzte bakarrik pasiboki erakusten maila soziala eta bortxadura, erakustez aparte horik erreproduzitu ere egiten dituzte. Gainegiturek ez dituzte azpiegiturak zilegitzen, azpiegiturek (aurreramenduak, ekonomi hobakuntzak, etab.) gainegiturak baizik. Horregatik zientzi aurreramenduaren izenean zilegiak bilakatzen dira, arraza bortxaketak eta kultur eta gizarte mailako diskriminatze eta bazterteak.

Horrela, bortxaketa eta esplotazioa, pertsonaren barne mailetaraino iristen ari dira. Lehengo ekonomi erreibindikapenak, kultur erreibindikapenak bilakatu dira. Orain duguna ez da bakarrik produkzio medioen jabegoan oinarritzen den bortxaketa ekonomikoa; bai eta errepresio eta diskriminazio espezifikokoak ere: Emakumeena, homosexualena, hiritarrena, profesionariena, etab.

Honelako mundu batean premiazko da nork bera daukan bereziena, anomaloena erreibindikatzea.

Tekno-egitura modernoak ezin onar dezake ohitura, portaera edo erabilkeren askatasunik, kontsumorako berauk kontrolatu beharra baitauka, portaera estaleak behar dituelako.

Sistema honetan posibleak dira oraindik edonolako askatasun ideologikoak, edo alderdi politikoenak. Baina sistema-erentzat onarrezinezkoa dena zera da, nork bere denbora, astia, fantasioazki, askatuki edo pribatuki erabiltzea.

JON SENDAGORTA

JAKIN

**EUSKAL KULTUR
ALDIZKARIA**

Hiruhilabetero

Bederatzi-garren
zenbakiaren gai nagusia

**IPAR EUSKAL
HERRIA**

Demografia

Historia

Politika

Ekonomia

Nekazaritza

—oOo—

1978.ko euskal
liburugintza

—oOo—

Biolentzia Euskal
Herrian

—oOo—

900 pta. urtean.
275 alea

Eskabideak
eta harpidetza:

Gral. Mola, 23-1.º
Donostia
Tel. (943) 27 17 13

HAUTESKUNDEAK, NAFARROA ETA EUSKARA

Zaldizko jasaren ondoren uholdeal izaten dira. Oraingo erauntsi politikoaren ondoren hauteskunde uholdeak izan ditugu. Aurrena Madrileko kongresu eta senadurako hauteskundeak. Gero herrigizonak aukeratu behar dugu. Parlamentu honek erabakiko du Nafarroa CGVan sartu ala ez.

Erne ibili behar dugu. Hauteskunde guztiak dira garrantzitsuak. Baina Parlamentu Foralaren hauteskunde hauek garrantzi handiagoa dute. Parlamentu honek ezetz esaten badu Euskadi lau zatitan banatuko da: Ipar Euskadi, Vascongadas, Errioxa eta Nafarroa.

Hartu berria dut Nafarroako UCDeen propaganda. Beste gauza gehiagoren artean hau dio: "Si en el Parlamento hubiéramos estados solos, Navarra, a estas horas sería Euzkadi" Ikusten denez UCDek ahalmen sobrenaturalak ditu. Egunen batean Nafarroako UCDek esanen du burdina ez dela 26. elementua; Hiru Erregeen Mahia ez dela mendia; gari eta barazki asko egiten dan zelai ederra dela eta Bidasoako urak ez doazela Kantabriar Itsasora, Mediterraniara baizik.

Baina ez. Gauza hau horrela izateko UCDek esatea ez da nahizo. Eta ez munduko biztanle guztiak esatea ere. Burdinak nukleoan 26 protoi ditu eta horregatik da 26. elementua. Hiru Erregeen Mahia 2.438 metroko altura duen mendi zorrotz bat da eta ez gari eta barazkiak egiten diren zelai. Bidasoak ez du Belateko gaina irautzeko gogorik eta horregatik Kantabriar Itsarora joaten da.

Eta Nafarroa ez dela Euskadi, Bai, Nafarroa Euskadi da. Hau sinetsi nahi es duena doala mendiz-mendi eta herriz herri eta ikusiko du Nafarroako mendi, zelai eta herriak euskal izenez josiak daudela (jakina, batzuk erdal izen traketsarekin daude. Adibidez: Las Dos Hermanas eta Arriba, baino hauek ba dute beren euskal

izena: Bi Haitzek eta Arribe). Baita ere ikusiko du 1.512. urtean Duque de Alba Sakanatik sartu zitzaigun ez geroztik gu zapaltzen ari direla, baina hala ere ba garela oraindik HERRI Harotik datorkigun euskara hitzegiten dugunok. Eta gaur Nafarroan euskara galduta dagoen lekuetan ere entzunen du "cabra hautskolore, erresumin" eta honelako euskararen sustrai asko.

Utz ditzagun elkarren arteko gora-behera eta sar ditzagun gizon egokiak Parlamentu Foralean. Honen ezetzak sendatzen zaila den zauri bat eginen luke eta urte askotarako okerra ekarriko liguke.


Herrigizonak aukeratzekoan hiritzinta, mendiak, kontribuzioak baikoitzak dituen aberastasunen araberako kobratu, ikastola eta beste herriko problemei irtenbide zuzena emanen dioten gizonak izan behar dutela gogoan izan. Eta hau bakarrik ez. Batzarreetan euskaraz hitzegiten duten gizon edo emakumeak izan behar dute.

Mujikak idazten ditu euskararen egoari buruzko artikulua bikainak "EGIN" en. Lehengo urtean argitaratu zituen bi artikulua gordeak daude. Udaletxean erdaldun bakar bat sartzea nahiko dela denak erdaldun hitzegiteko, dio Mujikak.

Tolosak 12.500 biztanle euskaldun ditu —dio Mujikak— eta 5.500 erdaldun. Beraz % 69 euskaldunak dira. Baina kaleetan, entzun ongi jaunak, % 4 bakarrik hitzegiten euskaraz.

Euskararen egoera larria da. Euskaraz biziko bada euskaraz hitzegi behar da. Eta leku guztietan gainera. Mujikak dioena gehiago gertatu ez dadin egin ditzagun herrigizon batzarretan bildurrik gabe euskaraz hitzegingo duten gizon edo emakumeak.

ASTAITZ



EUSKAL HERRIKO ANIMALIA JATORRENTARIKOEKIN EGINDAKO AZTERKETEN BERRIAK

Hemen naukazue gai arraro batetaz idazteko asmoarekin. Ez nekien zein ikuspegitik tratatu, baina lagun bati egingo nuela prometatut nionez...

—Gai lotsagarriren bat izango ote da?

—Ez horixe! Baina, eta hau sarritan besteetan irriak ikusi ditudalako diot, gai barregarri bat ez ote den zenbait kasutan zalantzan jarri naute.

—Beno, esanen didazue, zertaz idatzi behar duzu?, artikulua aurrera daramazulako, eta oraindik ez diguzu pistarik ere eman.

—Bai? Ba hor doa! Bareei buruz idatziko dizuet.

—Bareei buruz? Zer dela eta?

—Bilboko Zientzi Fakultateko Biologiaren Departamentuko Animalien Biologia aztertzen saiatzen garenok, duela zortzi urte gutti gorabehera ani-

malia hauk gaitzat hartu genituelako, nahiz egia esanik, nik bakarrik bost urte honetan eramana.

—Bareak? Ezer aztertzeke ba al dute ala? Lingirdarik baino ez badute!


—Hainbat bide entzun ditudan esaldiok!

Kaletarrek ezagutzen dutenentz ez dakidanez, Euskal Herriaren bareespezie bat baino gehigo daudela esanen dizuet. Baina arruntena, handiena eta beraz, jendeak gehien ezagutzen duena "gure" barea da. Bere izen zientifikoa: *Arion empiricorum*. Bere izen espezifikoa dioenez *empiricorum* "enpirikoen" barea da. Izen hau, aintzina "kataplastak" eta horrelako gauzak prestatzeko erabiltzen zelako datorkio, eta ba liteke gaur eguneko medikuntza herrikoian erabiltzea ere, kaltzio asko baitu.

—Ez didazue sinesten? Galde, galde iezaiezue herriko zaharrenei edo zori hobea baduzue herriko "kurandero-ari"!

"Gure" barea morfologia aldetik nolakoa den orain esango dizuet. Lau adartxo, luzeenen erpinean begiak daramatzalarik; burua beltza du, baina gorputzaren kolorea desberdina izan daiteke: beltza, gorriska, marroia, grisa, zuriska, etab.; baina den denak laranja kolorezko eta lerro beltzez zeharkatutako zerro bat dute gorputza inguratzen. Eskuin aldean, aurrean jarrita eta animaliaaren gogoaren arauera zabalduago ala hertsiago aurki dezakegun pneumostoma edo birikaren irtengunea kokatzen da.

Azalpen hau zerbait argitzeko eske-matxo bat jarriko dizuet.




Biologoentzat animalia honek zenbait berezitasun interesgarri ditu. Hona hemen batzu:

—Gure herrialdeko molusku lehortiar handiena da.

—Benetan?

—Benetan!

—Azal mehea eta hezea duenez, eta bestalde ez maskorrik eta ez beste inolako babes egiturarik ez duenez (anfibiak dira baldintza hau betetzen duten beste animalia bakarrak) urgaltze handiak izango ditu, ez da?



BAREAREN KANPO ANATOMIA

—Zer esanik ez, karaktere hauek animalia honen Fisiologia, Ekologia eta Etologia ere eragiten dituzte.

—Kasu gehienetan beren bizitzaren luzera urte batetara heltzen ez denez (10 hilabete batezbeste), eta bareen populazioen kopuruak aztertuz eta animalia bakoitzaren tamaina ikusiz (100 gr-taraino, eta ibiltze jarreraren 26 cm-taraino heldu daitezkeela gure esperientzia pertsonalak frogatu digunez), beraien errendimendu digestiboak nahiko onak izango direla eta uraren

aldetik nahiko ondo konpontzen direla aurreko berezitasunetarik ondoriozta dezakegu.

—Zer deritozue orain? Ez da egia, "gure" barea munduko animaliarik interesgarrietarikoa bihurtzen ari dela?

Makinatxo bat lerro idazten dihardut eta orain arte gaiaren mamia ez-kutuan gorde dizuet askoren kontzientzi biologikoa heldua ez baitzen.

Biologo gehienok eboluzionistak garenaz, neure buruari gertatu zitzaizkion aldaketak zientzi arloan behintzat, kontatzera noakizue, garai baita.

Lehenik esana dut gure Fakultatean zela edo hala bareak lan-gaitzat hartzeko tradizio antzeko jokaera zegoela, eta zer esanik ez, jokaera honek bizibizirik irauten du.

Lehen mementutik bareen errendimendu digestiboak interesatu zitzaizkidan; eta hau kontutan harturik, neure buruari lehen egin nizkion galderak, honexelakoak izan ziren.

—Bareak zertaz elikatzen dira?

—Batez ere belarrez, nahiz eta beste animalia hilak (aparteko proteina-iturriak omén baitira) jaten sarritan ikus ditzakegu; batez ere intsektuak eta beste bare hilak.

—Zeintzu dira belarraren konposagai nagusienak?

—Ura, zelulosa, eta gero beste azukre edo polisakarido batzu, eta proteinak.

—Zelulosa, ez da?

Baina, zelulosaren metabolismoak problema itzelak dakarzikie izaki bizidun guztiei, batez ere animaliei. Adibidez, Ornodunen artean zelulosa elikagaitzat hartzen denean, e. b. behiak,

zaldia, ahuntzak, ardiak, etab.), behi sinbiosira edo bizikidetzara jo behar dute, zeren bestela ez baitago zelulosa probetxatzerik.

Ornogabeengan —eta hain zuzen ere barea Ornogabea da— arazo hau ez da sakonki aztertu. Dirudienez, animaliek berek "zelulasa" (zelulosa zatitzen duen entzima) delako entzimak produzitzen dituzte.

Ohartxo bat. "Zelulasa" diogunean, ez dugu entzima bat delakotian hartu behar, hitz honetan entzima pilatxo bat sartzen dute; baina prozesu biokimikaren azterketa sakona gure lanaren mugetatik landa geratzen dela uste dudanez, bertan behera utziko dit.


Bestalde, Ornogabeak ere mikroorganismoekin harreman sinbiotikotan jar daitezke zelulosaren metabolismoan errazago aurrera eramateko.

Ez dut ezagutzen kasu bat ere, zelulosa prozesu bien garrantzi erlatiboa —bai animalia-entimen inportantzia eta bai mikroorganismoen inportantzia— argi eta garbi geratu den.

Honetaz zerbait gehiago esango dizuet. Moluskuak, eta hain zuzen ere Gasteropodoak, dira Ornogabeetarik berezko zelulasa gehien produzitzen dutenak. Eta gure bare laguna Molusku Gasteropoda dugu. Beraz, ez dugu uste zelulosaren metabolismoan aztertzeko animalia hau ontzat hartu dezakegula? Bai. Ba aurrera!

Moluskuen gibelarea da, entzima digestibo gehienak jariatzen dituen gibel-ruina. Beraz, zelulasa produzitzeko, hau izango da aukerako leku. Entzima hau topatzeko.

Beraz, zuzen-zuzen sartu ginen gibel-ruin hau aztertzen. Gibelarea homog-



natu ondoren, eta prozesu biokimiko batzuz baliatu ondoren, aterakin edo ekstraktu entzimatikoz zerbait purifikatu bat ateratzen genuen. Aterakin hau entzima edo entzimen jokaera eta berezitasun biokimikoak aztertzeke gai zen.

Honela pH-rik egokiena ($pH = 5,9$) temperaturarik egokienak ($37^{\circ} C$ eta $47^{\circ} C$), errekzioaren produktuak (zelobiosa eta glukosa), zinetikak zeintzu ziren, etab., aztertu genituen, eta honela entzima biren existentzia proposatu genuen.

Halaber, barearen hestea mikrobiologikoki aztertu genuenez, zenbait bakteriaz zelulolikiko edo zelulosa-zatikatzaile aurkitu genituen.

Bestalde, hestearen erdiko zatian luzerako zentimetro bakoitzeko, gutti gorabehera bost milioi bakteriaz zeudela ateratu genuen. Bost milioi hauetarik batzuz zelulosa-zatikatzaileak ziren eta animaliarren prozesu totalen beren inportantzia erlatiboa zein den, oraindik aztertzeke dago.

—Beno, eta horrek zertarako balio du?

pH-ren balorea ikusiz, gure hurrengo galdera hau izan zen.

—Ba dakigu entzima hauk gibelarriari dariela, baina barearen hodi digestiboaren zein partetan ekingo dute?

Beraz, gure hurrengo urratsa barearen hodi digestiboaren pH-a azterzea izan zen eta hestearen pH-a nahiko urrun zegoela eta berriz hodi digestiboaren aurreko zatia pH-a 5,7-6,1-en artean aurkitzen zela topatu genuenean, benetan harrিতuta geratu ginela.

—Orduan, barearen heste luzeak ez

du ia garrantzirik zelulosaren metabolismoan?

—Zertarako du orduan hain luzea? Jainkoak zekien orduan!

Gure Fakultateko beste ikertzaile batzuk ikusi dutenez, elikagaien mintz-arteke garraioan eta uraren garraioan du bere funtzioa.

Beraz, ba genekien zerbaitxo:

—Lehen eta behin, bareak berak zelulasak jariatzen dituela.

—Entzima hauen guruin jariatzaileak, gibelarea dela.

—Zelulosaren zatiketa, batez ere hodi digestiboaren aurrealdean ematen dela.

—Baina entzima hau berezkoa edo konstitutiboa zen, ala berriz, induzagarria? Hau da, nahiz eta janarian zelulosarik ez agertu, entzima hau produzitu eta jariatzen zen?, ala, bakar-bakarrik animaliak janarian zelulosa zuenean

—Eta bestalde, berezkoa edo konstitutiboa balitz, zenbat eta zelulosa gehiago ipini, hainbat eta entzima gehiago produzituko luke?, ala, oster, gutti gorabehera beti kantitate berdina produzituko luke?

Orduan, janari bereziak prestatzen hasi ginen, zeintzuetan karbohidrato bakarria zelulosa baitzen; beste janari batzutan almidoiarekin eta beste karbohidratoekin nahasturik (dieta osoa) agertzen zelarik eta hirugarren dieta moietan karbohidrato bakarria almidoia zelarik. Zer esanik ez, dieta hauke beste konposagai batzuz ba zuten: albumina (proteina), bitaminak, gatz mineralak, olioak, etab.

—Eta bareari hodi digestiboko bakteriak kentzen badizkiogu, ezer igerriko zaio?

Goazen orduan, beste hiru dieta prestatzera. Aurrekoak bezalakoak baina antibiotikoekin.

Zazpigarren dieta, belarrez osotutako janaria izan zen (dieta "naturala").

Bareak, hamar animaliatoko taldeetan banatu genituen, zeren taldeekin lana egiteak diferentzia indibidualak murrizten baititu, eta honela, batez-beste, taldeen jokaerak estadistikoki berdintsuak izanen dira.

Animalia guztien metabolismoak zela edo hala sinkronizatzeke, astebete baraurik jarri genituen, eta barau-astea amaitu ondoren, jaten eman genien.

Lau astetan lehen aipatutako zazpi dietak jaten (edo pairatzen?) eduki ondoren, talde guztiak hil genituen, gibelareak atera genituen. Beren aktibitate entzimatikoa neurtu genituen eta ondoko taula ateratu genuen.

DIETA	AKTIBITATE-AREN UNITATEAK
Osoa	34,01
Almidoia	33,85
Zelulosa	46,22
Osoa + Antibiotikoa	32,03
Almidoia + Antib.	28,36
Zelulosa + Antib.	41,26
Belarra (Taraxacum)	40,91

Ikusten dugunez, "zelulasen" kantitate handiena zelulosaren dietarekin lortu genuen.


Baina orain beste arazo bi agertzen zaizkigun:

—Guk azarez aukeratu genuen epea (lau astetako), egokiena zen, ala, berriz, aurrerago edo atzerago lortzen zen produkzio mailarik altuen?

GAIK ZIENTZIA GAIK ZIENTZIA GAIK GAIK

Aztertzekoa zela pentsatu genuenez, horretan saiatu ginen ea produkzio handieneko dieta aukeratzu, zelulosa-rena beraz, honelako grafika hau atera genuen.

—Bai, hau bareak gaztetxo direnean jazotzen da; baina zaharrak direnean, barearen eme fasean, eta bere metabolismoa zeharo aldaturik due-nean?




LEHEN GRAFIKA.— Udaberriko bareekin egindako azterketak. E. Astebete baraurik egondako bareen aktibitatea.

Azteketa berbera, udazkenean egin genuen berriro eta beste grafika hau atera genuen.

Itxura berdinekoa, baina aktibitate handiagoa. Beraz, "zelulasa" kantidad handiena atera nahi badugu, zelulosa dietarekin, udazkenean eta hiru-garren astean hil behar ditugu bareak.

Lehen galderari erantzuna eman diogu, baina orain bigarrena dator-kigu.



BIGARREN GRAFIKA.— Udazkeneko bareekin egindako azterketak. H. Astebete baraurik egondako bareen aktibitatea.

—Bareak dieta desberdinetaz elikatzen dira, bai. Baina nork baieztatzen digu bareen "osasuna" nolabait deitezkat? Zeren eta dieta batekin edo baizurekin animaliak gaizki elikatuta edo nahiko gaixorik egon baitaitezke.

Metabolismoaren gorabeherak ikusteko asmatu genuen erarik aproposena, arnasketa neurtzea izan zen. Beraz, arnasketa neurtu behar genuen, baina:

—Zein ordutan?

—Berdin zen goizean edo arratsaldean neurtzea, eguerdiko hiruretan edo arratsaldeko zazpitan?

—Ba al dute bareak arnaste erritmorik egunean zehar?

—Arazo hau aztertzeke, bareak talde-taldeen banatu genituen eta astebete bako-36. hor.

rautan eduki ondoren, taldeen arnasketa egunaren 24 orduetan zehar neurtu genuen. Grafika hau atera genuen.


—Kontxo, piku bi agertzen zaizkigu! Horrek esan nahi du, bareek ordu finko batzutan beste batzutan baino arnasa gehiago hartzen dutela.

—Zer dela eta ordu horietan metabolismo arinagoa dute, nahiz eta astebete baraurik egon?

Galdera polita benetan. Honen erantzuna politagoa izenen dela uste dut baina gaur egun benetako erantzuna bakarrik Jainkoak daki!

—Eta dieta desberdinekin elikatutako taldeetan honelako gauzarik agertuko zaizkigu? Azter dezagun!

Taldeak aste bete baraurik eduki ondoren, beste astebetean dieta desberdinetaz elikatzen eduki genituen, eta honelakoxe grafikak atera genituen.



HIRUGARREN GRAFIKA.— Astebete baraurik egondako bareen arnasketa egunaren zehar.


Norbaitek esango du:

—Hau ez dago ulertzerik! Dieta bakoitzarekin, grafika desberdina!

Momentu honetan grafika hauen azalpena bilatzen ari garela esan behar dizuet.

—Bestalde, erritmo zirkadiano hau erritmo endogenoak dira, hau dira, berez ematen dira nahiz eta animalia baldintza konstanteetan jarri ala egun eta gauaren jarraipenari darrarrie?


Datoen udaberriean, bareak —gure lagun minak— berriz agertzen zaizkigunean, berriro aztertzeke asmoarekin gabilza.



LAURAGAREN GRAFIKA.— Astebete belarra jaten egon diren bareen arnasketa.

Bitartean, arratsaldeko laurak aukeratu genuen ordurik aproposentzat, egunero eta bost astetan zehar bareen taldeen arnasketa neurtzeke.

Bestalde, arnasketaren balorea tenperaturaren arauera handitzen edo murrizten dela kontsideratu behar dugubatez ere bareak poikilotermoak (gorputzaren tenperatura eta ingurune-ko tenperatura nahiko berdintsuak) direla kontutan hartuz.




BOSGARREN GRAFIKA.— Astebete "dieta osoa" z elikatzen egondako bareen arnasketa.

Bestalde, zenbat eta bareak pisu handiagoa eduki, hainbat eta arnasa gehiago, eta zenbat eta gehiago jan, hainbat eta arnasa gehiago, zeren eta digestioa egiteko behar den lan metabolikoa handiagoa baita. Eta zenbat eta gorotzen kantidad handiagoa izan, hainbat eta arnasa guttiago (hond digestiboan janari duttiago) geratzen baita.

Faktore hau guztiok dietekin batera kontuan harturik, grafika puztiazugarria agertzean zaigu.

Hona hemen batzu, baina ia azalpen gabe, zeren momentu honetan egiten gabiltzen azterketak baitira eta erresultatu hau interpretatzen saiatzen ari baikara.



SEIGARREN GRAFIKA.— Astebete "dieta osoa + antibiotika" z elikatzen egon diren bareen arnasketa.

Noiz edo noiz amaitzeko, beste gutxi zatxo esanen dizuet. Azterketa hau egiteko behar diren bare-kopuruak izugarriak direla (ia 600 bare azterketan), eta bare-biltzaileen laguntza behar dugula. Halaber, bareak gaitateki bilatzen ari gara gure Unibertsitateko inguruak despopulatzeko ari baidakara, Lejoako baserritarren pozartu pozez, jakina.

Gure egoera larri hau konpontzeko ezagutzen baduzu, dei ezazu Anaia sunara eta eskerrik asko.



Gorputzaren pisua ezkerretara eroanez, belautara okerturik, eskuineko oinaz pauso bat egin aurrera.



BILBOKO KARATE LEHIAKETA

Urtarrilaren 27an Bilboko Kirol Pabeiloian "Urrezko Lauburua" deitu den Karate Lehiaketa bat egin da.

Komunikabideetan ez zaio txapelketa honi bat ere lekurik eman, eta ez dakigu zergatik, zeren alde batetik Bilboko Kirol Pabeiloai betetzeak, aipamen bat baino gehiago merezi duela uste baitugu, eta bestetik parte hartu duten Klub eta Karaten kopurua azpimarkatzekoa izan da, Miarritze, Donibane Lohitzune, Araba, Gipuzkoa, Santander eta Bizkaiko ekipoak...

Agian federazioari ez zaio atsegiten izan txapelketa hau Bizkaiko Karate Klub, Oyama eta Judo Klubek antolatua izatea. Dena dela, azken klub hauek beren kontura prestari badute, federazioaren inop: antziagatik izan da, ez baitu ezer ere egiten.

Karatea eta arte martzialak, duela gutxirarte ez du ia harrerarik izan;

orain, ba dirudi sartzen hasi dela, Judo eta Karate Klubak nonnahi irekitzen ari baitira.

Karate hitzak esku hutsa esan nahi du. Esku eta gorputzaz defendatzea. Hastapena, laborariek, Txinako harmadaren kontra egiten, defentsa teknikan dago. Harma gabe egonik, sokak, makilak eskuak eta bernak erabiltzen ikasi zuten, sarritan animalien jokaerak kopiatuz.

Japonen, aurrerakada ekonomikoarekin eta nazionalisten eraginez, judo eta karateari bultzada ikaragarria eman zien eskoletan eta sartuz.

Karatearen oinarria, Katak —hau da, kolpe eta geratzen konbinaketa koordinatuak— eta konbatak dira.

Ezagumendu maila handituz doan neurrian, gerrikoa aldatzen da, zuritik beltzera. Lehen, ekitearen ekiaz eta urtetako esperientzia eta burruken

eraginaz, gerrikoak berak kolore beltza hartzen zuen; gaur egun koloreak, aldatu egiten dira... zuria, horia, laranja, berdea...

Txapelketetan, katak eta konbatak egiten dira, konbatetan ez du jotzeak balio.

27ko lehiaketa, erakusketa polit bat izan zen. Eguraldia oso txarra egin zuen. Hautxo pila bat kimonoz desfilatzen, dantzari talde bat eta konbatak giro ona sortu zuten.

Karateka trebeak eta preparatuak agertu ziren. Inor aipatzekotan, Cesar, Bizkaiko karate Klubeko oso ongi egon zen eta Miarritzeko ekipoa ere. Arbitroen artea, Cobo, Koitxi eta beste irakasle jatorrak ikusi genituen. Karatea, Atsegini izango zaizu, kirol gogorra egin nahi badazu.



EUSKAL IRAKASLEEI JAZOTAKOAK (*negar egiteko sketch-ak*)

I

Mattinek euskarazko klasea leku ofizial batetan ematen du.

Irakasleen soldata ez zen heltzen, hiru hilabetetan, eta gure mutila guztion izenean, hortaz protestatzera, Perez jaunarengana, langileburua bera, joan zen.

Langileburuaren idazkariak ea zertan zihoan galdetu zion, eta Mattinek dirua eskatzera joan zela esan zionean, neskak horrela erantzun zion:

—Baina kobratuko duzuela pentsatzen duzue, ala? Mattin, sustoaz, hurrera iausi zen...

38. hor.

II

Oihanak Gau-eskola batetan egiten du lan.

Egun batetan andre bat etorri zitzaion, ea ordua zenbatean kobratzen zuen galdetuz.

Oihanak hirurehun pezeta ordaintzen ziotela esan zionean, erantzun hau hartu zuen andrearengandik:

Jesus! Ia, ia ingelesezko irakasle batek kobratzen duen beste! Ez zara kexatuko....

Oihanak arrabiazko malkoak bota zituen egun horretan.

III

Alaitz unibertsitatean ikasle euskarazko irakaslea da.

Gurasoen lagun batekin hizketan ari zen kaleak:

—Gorkak ba du meritoa, ikasten ari da eta lan egiten akademia batetan.

—Nik ere, horrela egiten dut.

—Bai? Noiztik, ba?

Urte batzu daramatzat euskarazko eskolak ematen.


—A! Nik benetako lan bat egiten zenuela pentsatzen nuen...

Alaitzek, erantzun gogor bat ematearren, txua irentsi behar izan zuen...

AZKEN OHARRA: Ipuin antzeko hauk, triste eta harrigarri badira, aurton, 1979. urtean, eta hemen, Euzko Herriko Bilbo inguru honetan, taturikoak dira.

EKA

Gizaki



EUSKARAREN KOMODINAK (I)

“Hizkuntzaren komodinak” eta euskararen kontretuki aipatzean, maila desberdinetako hitzak eta hitzmul tzoak adierazi nahi ditut. Ez dakit, izen hori egokia denentz eta, bestalde, ez naiz hitz horien kategoria gramatikala aztertzen hasiko, zeren eta artikulua honek duen helburu praktikorako hori gutxienez baita. Ba dakit, hala ere, gramatika aldetik gahiago sakondu behar dela puntua. Baina, aldeztatik aurretik esan nahi dut, helburu gisa idazterako arau sinple batzuek ematea hartu dudala, bestelako eztabaidatan sartu gabe.

Eta nolabait, hasteko, lehenik eta behin definitu egiten ditugu hitz horiek beren ezaugarri batzuren bidez, eta gero, zertarako, non eta nola erabiltzen diren azalduko dugu, horrelakoen zerrendak emanez bukatzeko.

Bestetik gabe, ba, honelakoak dira, nik “euskararen komodinak” deitzen ditudanak:

Normalean hitz bakar batez (bizpahirutakoak ere ba dira) osoturik daude.

Lotur hitzak dira gehienetan, esaldiak edo eta testu-zatiak lotzekoak.

Erritmoa eta esaldi luzeak apurtzekoak eta prosa arruntean lagungarritzat erabiltzekoak.

Batzuk, erritmoa, apurtzean, erraztu egiten dute irakurketa, testuari argitasuna emanez. Horrela estiloa bera ere arindu egiten da.

Axularrek berak eurrez erabiltzen zituen honelakoak, eta **GERO** liburua zabaltzea bestetik ez dago, horretaz laster konturatzeko. Ene ustez, oso praktikoak baitira, euskal idazleek eta ikasleek ongi ezagutu behar dituzte.

Eta zenbat eta komidin gehiago ezagutu, hobe. Horrela, asko ezagutzean, aldatzeko posibilitatea edukiko dute, textuetan behin eta berriro forma berberak ez erabiltzeko posibilitatea halegia.

Idatzitakoak irakurri ondoren, goazen, ba, horrelako batzuren zerrenda jartzera. Zer esanik ez, zerrenda au ez da inola ere osoa, guztiz irekia eta osotua izateko prest dagoena baizik. Edonola ere, nolabait hasi behar denez, neure erako sailkapen bat egiten dut, komodinok multzo desberdine-

tan banatuz. Sailkapena egiteko erabili ditudan kriterioak, ez dira, egia esan, ortodoxoegiak, heterodoxoak direla ez esaterarren. Baina, neure praktikan behintzat oso erabilgarri gertatu zaizkidanez, nik neuk sailkatu-rik ditudan moduan emanez dizkizuet.

Hona emen, ba, aipaturiko sailkapena eta zerrenda.

1.—Esaldien hasieran eta nolabait aurretik esanikoaren ondorioa ematekoak. Esangura kontsekutiboa dute.

Orduan, ba
Beraz,
Honela (Horrela, hala)
Honela, ba,
Honelatan, ba,
Horregatik,

Gehienetan, koma bat jarri ohi da hauen ondoan.

2.—Esaldien hasieran eta aurreko esaldiaren kontrako zerbait edo mugaren bat adierazteko erabiltzen direnak:

Hala ere,
Bestalde,
Haatik,
Hala eta guztiz,
Baina
Hala eta guztiz ere,
Edozertaka,
Edozein kasutan,
Edozein eratan,
Edozein modutan,
Dena den,
Dena dela,
Nolanahi (ere),
Edonola (ere),
Edozelan (ere),
Zer esanik ez.

ikusten denez, hauen ondotik ere gehienetan koma bat jarri ohi da.

3.—Aurreko esaldien arrazona-
mendua indartzera datozen esaldien hasieran jartzeko komodinak.

Gainera,
Bestealde,
Modu berean,
Era berean,
Halaber.

4.—Tartean jartzen direnak (bai hasieran edo bukaeran ere) eta azalpena emateko direnak. Askotan, koma artean doaz.

, esaterako,
, esate baterako,
, adibidez,
, kasu,
, hau da,
, host,
, hala nola,

5.—Antzerakoak dira, esaldi adbertsatiboak lotzeko erabiltzen direnak.

, ordea,
, ostera,
, berriz,
, aldiz,
, aitzitik,
, alderantziz,
, bestealde,
, baina,
, alabaina,

6.—Azalpen modura edo atzetik erabiltzen direnak

hain zuzen (ere)
prezeski
noski
behintzat
bederen
behinik-behin (behinipehin)

7.—Aposizio modura erabiltzen direnak, aurretik eman den izena azpimarkatu edo egin nahi denean hain zuzen ere

delakoa
izenekoa
aipaturikoa
famatua

8.—Galdegaiaren funtzio arintzeko, izenordain edo esaldi-ordain gisa ageri direnak

zera
hauxe
ondokoa
ondoko hau

Emaniko zerredarekin, ba, bukatu egiten dugu artikulua oraingo. Ba dakit, jakin, hitz hauen erabilera adibideen bidez ematen dela argien eta zehazkien. Edozetara ere, hasteko nahiko dugu zerrenda honekin eta hurrengo artikulua batzutan osotu egiten dugu zerrenda hori eta adibideak ipiniko ditugu.

J. R. ETXEBARRIA

GURUTZEGRAMA

23.

J	A	² I	O	³ T	⁴ Z	E	⁵ K	O	N	⁶ T	R	O	⁷ L	⁸ A
O		F		⁹ I	A		A			X			¹⁸ O	P
¹¹ S	U	E	Z		¹² H	A	R	G	¹³ A	I	¹⁴ X			A
E		R		¹⁵ B	A		M		¹⁶ I	R	I	B	A	R
¹⁷ M	¹⁸ I	N	¹⁹ G	A	R		E			R				R
²⁰ A	N	U	A	R			²¹ L	²² I		I		²³ M	I	A
R		²⁴ R	I		²⁵ A	²⁶ B	E	L		²⁷ Z	²⁸ E	A		M
²⁹ I	V	A	N	³⁰ I	K	A	R	A	³¹ G	A	R	R	I	A
A		³² T	A	K		³³ G	O	R	A		³⁴ R	I		N
³⁵ A	M	U		U		³⁶ A	T		L		³⁷ A	G	³⁸ O	T
G				R			A		³⁹ I	⁴⁰ T	Z	A	L	A
⁴¹ I	Z	A	⁴² R	⁴³ A		E		⁴⁴ Z	U		I			R
R			⁴⁵ A	I	T	A	T	X	I		⁴⁶ E	Z	E	R
⁴⁷ R	⁴⁸ A			N			X		⁴⁹ A	⁵⁰ K		T		A
⁵¹ E	U	S	K	A	L	H	E	R	R	I	K	O	A	K


24.

1	2	3	4			5	6	7	8		9	10	11	
12					13						14			15
16					17				18					
				19				20				21		22
23									24			25		
26												27		
28					29			30			31			
32				33					34					35
				36					37					
38	39													40
41					42	43								
44						45								
				46		47	48			49			50	51
52	53							54				55		
		56				57					58			

24. ZENBAKIA

LUZETARA: 1: Martxoan eurite, urtea.....
 5: Abel-en anaia. 9: "Bizitza" adierazten duen aurrizki. 13: Harri, Brontze edo Burdin..... 13: Arrats gorri, (2 hitz). 16: Euskal sindikal talde. 17: Entzun ezin dezakeen. 18: Burdinezko palu handia. 20: Euskadi askatasuna. 21: Korkuten liburua, turkiar mythologiaren iturri nagusia. 23: Eguzkia nora, (2 hitz). 25: Pertsia. 26: Atzizki plurala. 27: Zola-ren nobela ezagunena. 28: "Influencias del vascuence en la lengua castellana"ren egilea. 30: Sasoiak. 32: Italiako hibai. 33: Dut, gipuzkeraz. 34: Zein gauza? 35: Baiezko partikula. 36: Emakumezko ernaltze organoak. 37: Amerikar krokodilo. 38: Lehen gizona. 40: Bide (ingelesazko laburpena). 41: "Amaia" edo "erabakia" adierazteko oihu. 42: Goiz gorri, (2 hitz). 44: Franz iparramerikar antropologo ta hizkuntzalari. 45: enel 46: Handi ez den (bariante). 49: Manu, potestate. 50: Laga! 52: Siam. 55: Eguzkia (zubereraz). 56: Gehiegi janda gero, hau dugu. 57: Sodio bikarbonatoa. 58: Eraman (bizkaieraz).

GOITIK BEHERA.—1: Lo egiteko leku. 2: Bilbo ondoko herri. 3: Garoa. 4: Atzizki adberbial. 5: "Joera" adierazten duen atzizki. 6: "....., Mari Migel..." 7: Sabin Arana-ren hitza, "berriak" adierazteko. 8: "Berri" adierazten duen aurrizki. 9: Balizko olak (2 hitz). 10: Aiurriak. 11: Atzizki plural hurbila. 13: 1937-ko traidorea. 14: 0,001 kg. 15: izana txiki (2 hitz). 19: Euskal musikologo (1886-1956; 2 hitz). 20: Kubata egilea. 22: Israel-en tribuetarik bat. 23: Euskal Herria ez da banatzeko (2 hitz). 24: Pronuntziazioa. 29: Hegoekialdeko Asiako urte berria. 31: Non han sua. 35: Pedro lehen euskal dramagile. 36: Askotan saltsa berdetan jaten dira. 39: "Amonak ene potxolo...". 43: Atzizki alatibo mugatzaila. 47: 49, erromatar zenbakitan. 48: Euskal politika talde. 49: Farrow, aktriz. 50: Ezetza. 51: Zen, bizkaieraz; 53: Txi Minh. 54: Euskal letra gutxienik erabilia. 55: Erbio, simbolo khimiko.



NAHIE ETA TERRORISMOKO APOLOGIA IZATEKO
ARRISKUAN EGON "TOMATES ROJOS"
DIRELAKOAK JATEAN JARRAITUKO DUT

HONTI



Eman zure BOTOA MARCELINO OREJA-RI

Onako au nai degun euzkaldunak gera berriz bizimodu erosoak eukitzea.

Onako au nai degun euzkaldunak gera Espainia Europaratzea.

Onako au nai degun euzkaldunak gera indarkeria bukatzea.

Onako au nai degun euzkaldunak gera Foruak eta Konzerto Ekonomikoak berriz indarrean jartzea.

Onako au nai degun euzkaldunak gera euskaldun eta espainiar izatea.



Lerro hau idazten nagoela, ez da oraindik martxoaren lehen egun famatu hori heldu. Eta argitaratzen direnerako, ordea, hauteskondeetako erresultatuak ezagunak izango dira agian. Orduan, UCD ponpoxoak Euskal Herriko "majoria ixilarengan" duen indarra ikusiko da; edo nahiago baduzue, propagandak (telebistak eta bestek) pertsona horiengan duen eragina.

Dena den, datu horietatik aparte, eta Gipuzkoan boto asko zein gutxi lortu, euskaldun bezala, kritika gogorra egin behar diogu Oreja jaunari. Agian jatorriz hori ez bada ere, "oreja" hitza erdaraz, euskarazko "belarri" hitzaren esangurarekin erabiltzen dela bagenekien ere, ez genuen uste, Oreja jaun ministro agurgarriak (omen), astabelarriak merezi zituena. Eta astoaren izena aipatzen dut, elefante afrikarrarena ez aipatzearen.

Bai jaunok, euskal eskolan astabelarriak merezi ditu, bai Oreja jaunik; eta bai Espainiako Estatuan jaun eta jabe diren UCDkoek ere. Zeren eta bestela, nola demontre hartu behar dugu euskaldunok, Gipuzkoarako propagandan erabili duten euskara (sic)? Hona hemen adibide bat.

Hori, adiskideok, nik dakidala, ez da euskara, Madrilgo euskalkia ez bada behintzat. Gehiago oraindik: Euskararen kontrako iraina da. Burla bat. Euskaldunoi barre egitea.

Zer esanen lukete Isabel Katolikoaren finkan, UCDkoek inperioko hizkuntzaz "LO DICHO... HECHO" idatzi eta esan beharren, "LO DECIDO... ACIDO" edo antzekoren bat ipiniko balute?

Astabelarriak, beraz, zuretzat, o ministro ahalguztidunori! Ez horregatik.

R. GARAI



EGYPTO GREZIA ETA ISRAEL

Lankide
Aurrezki kutxarekin

Lankide aurrezkiak 160 aurreztaile
gonbidatzen ditu,
Mediterraneoan zehar bidaia egitera,
Egypto, Grezia eta Israel bisitatzuz.

GURE edozein BULEGOTAN, 1979 ko
Urtarrilaren 2tik aurrera, aurrezki eragiketarako egiten
dituzten guztiek parte har dezakete zozketan.

1.000 pezetako ezarpen bakoitzeko, zozketa
txartel bat hartzeko eskubidea daukazu, eta, gainera,
lehen ezarpen hori egiterakoan, zenezukakoen 10.000
pezetako saldo bakoitzeko beste *txartel* bana hartzeko
eskubidea duzu.

Bidaia honetarako ateratako
txartel bakoitzak
pertsonek birezat
balio izanen du.



1979: Lankide Aurrezkiaren itsas bidaiaren urtea.



Gure herriaren nahi eta izpirituaren arauera dihardugu

Horrexegatik, hain zuzen, Gipuzkoako 100.000 familiatik gora gutaz fidatzen dira.

Gipuzkoan bizi diren familia guzientzat, soluziobide aproposak sortzen ditugu beren Aurrezki, Kreditu, premiak... etab. konpontzeko.

Gure herriaren nahi eta izpirituarekin zerikusi estua duten hainbat ekintza ere burutzen dugu. Horrela, gure lurralde

honetako kultur, folklore eta kirol adierazpenetan parte hartzen dugu; euskal kulturaren aldeko ekintzak bultzatu eta babesten ditugu (liburu argitalpenak, literatur txapelketak, margolaritza txapelketak, kontzertuak eta koralak, hitzaldiak eta kultur asteak...) eta Euskal

Hiztegi Arauemailearen argitalpena bezelako proiektu garrantzitsuak burutzen ditugu.

